



EUOPAR BATASUNA
COMUNIDAD EUROPEA
Europar Gizarte Fonda
Fondo Social Europeo



**KUDEAKETARI ETA JARDUEREI
BURUZKO URTEKO TXOSTENA
2010. URTEA**

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila buru duen Sasoikako Lanaren Arretarako Erakunde Arteko Mahaiak egin eta onartutako txostena.

AURKIBIDEA

SARRERA -----	3
LAN-ESPARRUEN ARABERAKO DESKARGUA -----	4
1. KONTRATAZIO-BALDINTZEN HOBEKUNTZA -----	4
1.1. JATORRIAN KONTRATATZEA - -----	4
1.2 LAN-IKUSKAKETAK -----	19
1.3. PRESTAKUNTZA-----	25
1.4 APLIKAZIO INFORMATIKOA-----	26
1.5 NEKAZARITZA-HITZARMENA -----	26
1.6 INFORMAZIO-BULEGOAK-----	26
1.7 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA -----	29
1.8 SASOIKAKO LANGILEEN ARRETARAKO DOAKO TELEFONOA --- -----	30
2. BIZITOKIAK-----	30
3. ADINGABEEN ARRETA-----	31
3.1 ADINGABEEN ESKOLATZEA-----	31
3.2 BALIABIDEEN KOORDINAZIOA -----	32
3.3 GIZARTEAREN ETA HEZKUNTZAREN ALORREKO PLANAK EGITEA ETA APLIKATZEA -----	38
4. GIZARTEAREN SENTSIBILIZAZIOA -----	45
PROGRAMATUTAKO JARDUEREN AZTERKETA -----	49
BETEARAZITAKO AURREKONTUEN AZTERKETA -----	64
ONDORIOAK -----	65

SARRERA

Sasoikako Lanaren Arretarako II. Plan Orokorrean zehaztutakoaren arabera, urteko lehen seihilekoan, azken ekitaldiko Kudeaketari eta Jardueri buruzko Urteko Txostena egin behar du, urtero, Erakunde Arteko Mahaiak. Onartu ondoren, Eusko Jaurlaritzari eta Eusko Legebiltzarrari bidaliko zaie txostena.

Plana osatzen duten bi zatiak aztertuko dira txosten horretan, hau da:

- 1.- 2008-2012 urteetarako jardunbideak
- 2.- Gauzatutako ekintzak. Eranskinak.

Azterketa egin ondoren, 2010erako aurreikusitako ekintza bakoitzaren helburuak zer neurritan bete diren ebaluatuko dugu. Horrela, kasuan kasu lortutako emaitzen arabera, aurretiaz ezarritako helburuak berraztertu eta gaurkotuko ditugu; hori egitea beharrezkoa bada, betiere.

Urtean barrena, hainbat bilera egin dituzte lantaldeek. Hainbat ekintza gauzatzeko beharrezkoak ziren jarduerak, egutegia, baliabide materialak eta pertsonalak zehaztu dituzte bilera horietan. Horrez gain, txosten hau osatzeko beharrezkoak ziren laburpenak eta datuak helarazi dizkigute lantaldeek.

LAN-ESPARRUEN ARABERAKO DESKARGUA:

1. KONTRATAZIO-BALDINTZEN HOBEKUNTZA

Lantaldeko kideak: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila; Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila; Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saila; Gobernuaren Ordezkariordeztza Araban; eta UAGA.

1.1. LANGILEAK JATORRIAN KONTRATA DAITEZELA SUSTATZEA

1.1.1. JATORRIAN KONTRATATZEA eta

1.1.3. KONTRATAZIO-PROGRAMA ZABALTZEA

Arduraduna: UAGA (Arabako Nekazari eta Abeltzainen Batasuna)

Sasoikako langileak kudeatzeko urte latza izan badugu ere, garrantzi handiko zenbait lorpen izan dira 2010ean. Aztergai dugun urte horretatik aurrera, sasoikako langileak ez dira kontratatuko PCU ETT SL enpresaren bitartez. Horren eraginez, aldatu egin da nekazarien eta kontratatutako langileen arteko laneko harremanaren eredia.

Besteak beste, legeetan definitutako eta zedarriztatutako lan-artekaritza gauzatzen du UAGAK. Hortaz, gure erakundeak ezingo luke, berez, kontraturik egin.

Egoera hori konpontzeko asmoz, legezko hainbat aukera aztertu ziren. Irtenbideetako bat izan zen, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari eskatzea UAGA enplegu-agentzia bihur zezala. Aztertu genuen, baita ere, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarekin elkarlanean aritzeko aukera.

Azkenean, Lanbideren laguntzari esker, hitzarmen bat sinatu zen, Euskal Enplegu Zerbitzuaren zentro laguntzaile izan dadin UAGA. Sasoikako lanaren eremuan aritzen dira elkarlanean bi erakunde horiek. Hala eta guztiz ere, sektoreko lan-harremanekin lotura duten ekintza guztiak barne hartuko dituen sistema diseinatuko da etorkizunean.

UAGA, esaterako, bitarteko aritu daiteke lan-merkatuan; hau da, lan-eskaintzak eta -eskaerak jaso ditzake eta, ondoren, horiek elkarren artean lotu.

Arestian aipatutako arrazoiek, hala ere, eragina izan dute lan-prozesuen gain. Alde batetik, nekazari bakoitzak bere langileak kontratatzen dituzenez, lehen baino administrazioko izapide gehiago egin dira (altak, bajak, benetako jardunaldien berri ematea, kotizazioak, kontratuak, nominak, enpresa-egiaztagiriak, laneko arriskuak prebenitzeko materialak, soldata-bahiturak, eta abar).

Lanbiderekin elkarlanean aritzeaz gain, hainbat konpromiso hartu ditu bere gain UAGAK. Esaterako, lan-eskaintzen eta -eskarien datuak bere datu basean jaso eta eguneratu ditu.

Bestetik, langile-kontratazioen gain zuzeneko eragina izan du mahatsaren prezioaren beherakada handiak. Nekazariak kostuak murrizten hasi behar izan dira. Kontratazioak ahalik eta gehien murriztu dituzte zenbait nekazarik, familiakoen artean lana ateratzearen edota lehen baino ordu gehiago lanean aritzearen bidez. Beste batzuek, aldiz, zenbait laborantza utzi dituzte.

UAGAREN programari dagokionez, lan-eskaintzen baldintza ekonomikoei buruzko eztabaida sortu da. Soldatak ez dira igo aurtan. Egoera ekonomikoaren etorkizuneko itxaropena ikusirik, zaila izango da baldintza ekonomiko onei eustea. Horrez gain, lan-baldintzak kaskartzen ari dira, Arabako Errioxa eskualdean bereziki. Are gehiago, legez kanpoko azpikontratatzaileen bidez UAGAREN programan jasotakoa baino ehuneko 40 eta 50 gehiago ari dira murrizten kontratazio-kostuak.

Administrazio-jardunbidearen eredia aldatu bada ere, kontratazio-programaren funtzionamendua dela-eta ezin dira langile gutxiago kontratatu kanpainarako. Langile gutxiago kontratatu badira ere, langileok eskarmentua zuten gauzatu beharreko atzetan eta, ondorioz, aurrera atera ahal izan dute lana.

2010ean, bestetik, IKTK garatutako aplikazio informatikoa eraginkortasunez jarri zen martxan. 2005. urtean hasi ziren aplikazio hori egiten eta, hainbat proba egin ondoren, 2010ean hasi dira hura

erabiltzen kanpainei buruzko informazioaren parte bat kudeatzeko. Sasoikako lanen eskaintzak eta eskaerak kudeatzeko balio badu ere, sasoikako langileei buruzko informazioa baino ez da erabili.

Eltziegoko informazio-bulegoari dagokionez, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren ardurapean izan zen bulego hori 2009ra arte. 2010ean, berriz, bulego horretako arreta kentzea erabaki zuen Diruzaintzak. Hortaz, ordura arte informazio-bulego horretan eskaintako arreta UAGAk eskaini zezala proposatu zuen IMK-k. Gure erakundeak onartu egin zuen haien proposamena, ondoko baldintza hau jarrita: kanpaina amaitzean beharrak balioetsiko ziren, eta etorkizunean zerbitzua eskaintzea bideragarria izango zen aztertu.

Lan-poltsa

Poltsa horren barruan sartzen dira programak iraun bitartean UAGArekin lan egin duten pertsona guztiak. Poltsan sartu dira, baita ere, nekazaritzaren sektorean lan egin nahi duen ooren lan-eskaerak.

Kanpainak antolatzeko orduan, lehentasunak ezartzen dira lan-eskatzaileren artean. Lehenetsiko da, adibidez, aurreko urteko kanpainan lanean aritutako sasoikako langileen talde bera aurten ere elkarrekin aritzea. Langile-talde jakin bateko kide batek talde berri batekin edo beste talderen batekin joan nahi badu lanera, lehentasuna galduko du. Aurreko urteetako langileak lantalde berean ari daitezela saiatu behar dugu; aurreko urtean ondo aritu baziren, noski.

Gasteizko bulegoan 250 lan-eskaintza jaso ziren 2010ean; Guardian, berriz, 1850. Gasteizko bulegoan izena eman duten langile gehienak etorkinak dira, hainbat herrialdeetatik etorri eta egun Araban bizi direnak. Bertakoak gutxi dira Gasteizko bulegoan (gazteak, integratzeko zailtasunak dituzten pertsonak, eta abar). Lan-eskaintzarik ez zegoenez, eskatzaileren izenak hartzeari uztea erabaki zen irailaren erdialdera, eskatzailerei alferrikako itzaropenik ez emateko.

Sasoikako langileak

Sasoikako 739 langile aritu ziren guztira 2010ean. Horien %0,68 besterik ez da emakumezko. Mahats-bilketan hiru emakumezko kontratatu ziren, eta patata-bilketan bi.

Aurreko urteetan gertatu bezalaxe, mahats-bilketan aritzen dira sasoikako langile gehienak. Gainera, aurreko urteetan aritutako gero eta pertsona gehiagok errepikatzen du kanpaina horretan.

Kontratatu diren pertsona gehienak **marokoarrak** dira (%92).

Hala ere, herrialde askotako pertsonak kontratatzen saiatzen dira. Aurten, esaterako, Errumaniako lantalde bat aritu da piperminak eta mahatsak biltzen. Lituaniako pertsona-talde bat aritu da, baita ere; eta Andaluziako langileek etortzen jarraitzen dute.

Aurten estreinakoz, hirugarren graduako espetxe-zigorra betetzen ari diren bi pertsonak hartu dute parte; lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiak dituzten pertsonak laneratzeko laguntza eskatu baitzituen Salhaketakoek UAGari. Lan egiteko baimena badute ere, enpresaburuek aurreiritziak dituzte espetxeratuaren gain, eta ez dituzte kontratatu nahi. Egoera horri aurre egiteko, programan parte hartuko zuten espetxeratuak ondo aukera zitzatela eskatu ziren UAGAk, esperientzia horrek baldintzatuko baitzituen etorkizunean proiektuarekin jarraitzea. Proiektua ondo atera zen, eta espetxeratuak bi ustiategitan aritu ziren patatak biltzen.


Hariari atzera helduz, behin lantaldeak lantokian direla, ondoko protokolo hau betetzen da:

- UAGako teknikariek langileak hartzen dituzte.
- UAGaren programa azaltzen zaie langileei.
- Kanpainako eskaintza sinatzen da.
- Laneko arriskuak prebenitzeko prestatzen zaie.
- Norbera babesteko ekipamenduak ematen zaizkie.
- Agiriak sinatzen dira (NBE-en ematea, prestakuntzaren egiaztagiria).
- Bilaketa egiten da IKT-ren datu basean eta kasuan kasuko kanpainaren artxiboa sortu.
- Nortasun-agiriak eskatzen zaizkie eta, IKT-ren datu-basean jasota ez badaude, eskaneatu egiten dira.
- Lanbideren datu-basean datuak sartu eta agiriak sinatzen dira.
- Dagokien bizitokira doaz langileak.


Ondoren, lanean zer egunetan hasiko diren eta nekazaritzako zer ustiatetik kontratatuko dituen jakinarazten zaie langileei. Lanak amaitzean, kanpainako beste lan-eskaintza batzuk esleituko dizkie UAGAk.

Hiru lantalde aldatu behar izan ziren mahats-bilketan. Gainerako kanpainetan, ordea, ez da era horretako jazoerarik izan.

Jatorrian kontratuak egiteko UAGaren programan parte hartu duten pertsonen eboluzioa:



Mahats-bilketako sasoikako langileak, sexuaren arabera.




Nekazariak

Guztira, 282 nekazarik hartu dute parte 2010eko kanpainan. Aurreko urtearen aldean, aldaketa txiki bat izan da kanpaina guztietan. Patata biltzeko kanpainan eta udaberriko kimaketan, esaterako, aurreko urtean baino nekazari gehiagok hartu dute parte. Mahats-bilketako parte-hartzea, berriz, txikiagoa izan da 2009koa baino. Askoz txikiagoa izan da, baita ere, inausketan parte hartu duten nekazarien kopurua.

Kanpaina bakoitzari buruzko atalean azaldutakoari helduz, badira hizpide ditugun kopuruen gain eragina duten zenbait faktore. Nabarmentzekoa da, esate baterako, mahats-bilketaren zifra. Izena emateko epean, kanpaina horretan parte hartzeko 139 eskaera jaso ziren. Ondoren, eskaera horien kopuruak behera egin zuen, eta 135 eskaeratan geratu. Zenbait kasutan, makinak erabili dira mahatsa biltzeko. Besteetan, aldiz, UAGAKo lan-poltsako sasoikako langileak kontratatu dira sindikatua bitarteko izan gabe. Aztergai dugun kanpaina honetan, bestalde, hainbat parte hartzaile berri izan dira, artean, Samaniegoko lau ustiategi. Aurreko urteetan, Portugalgo langileak kontratatzen zituzten ustiategi horiek guztiek.


Mahatsak biltzeko kanpainan ez da arazo handirik izaten. Hala ere, zenbaitek ez dute ulertu "bizitokia lagatzearen" kontua zertan datzan. Ustiategiekin bizitokia lagatzen diote UAGARI, eta UAGAK bizitokiak kudeatzen ditu kanpainak iraun bitartean. Normalean, harentzat lan egingo dutenak bizi dira nekazariak lagatako bizitokian. Kanpainetan parte hartzeko konpromisoan adierazitakoaren arabera, hala ere, nahikoa langilerik ez badago, langileak ez dira nekazariarenak izango, programarenak baizik. Horrelakoetan, langile-taldeak banatu egin behar dira, eskaera guztiak hartu ahal izateko. Aurten, esaterako, langileak banatu egin behar izan dira mahatsa biltzeko kanpainan. Jabeetako batek ez du inguruabar hori ulertu, eta mehatxu du bere mahastietan lanean arituko ez ziren sasoikako langileak bere bizitokitik at bidaltzearekin.




2010eko inausaldiko kanpainan parte hartu duten Arabako ustiategien zerrenda, herrien arabera.

NAVARIDAS	1
MAÑUETA	1
LABRAZA	1
EKORA	1
GORREBUSTO	1
GUARDIA	1
BILAR	2
LANTZIEGO	2

Udaberriko kimaketarako eta altsumak kentzeko langileak behar izan zituzten Arabako Errioxako ustiategien kopurua, herriaren arabera.



Mahats-bilketarako langileak behar izan zituzten Arabako Errioxako ustategien kopurua, herriaren arabera.



2010ean patata biltzeko kanpainan parte hartu zuten Arabako ustiatgien zerrenda, udalerrika.

ALDA	1
APINAIZ	2
ARGANDOÑA	1
BURGELU	1
ETXABARRI-URTUPINA	2
GAZEO	1
JUNGITU	1
MAEZTU	1
MATAUKU	1
OTAZU	1
SABANDO	1
ZALDUONDO	1

Proiektuak

Sasoikako lanaren eremuan erreferente bihurtu nahi da UAGA. Horregatik, elkarteak beti prest dago informazioa edo aholkuak emateko kontratazio-programari buruz edota kontraturen bat egin behar duen sektoreko edozein eragilek bete beharreko legezko izapideei buruz.

Gipuzkoako sagar-ekoizleek –mahairako nahiz sagardoa egiteko sagarren ekoizleek– eskatu dute informazioa aurrean. UAGAREN proiektuak ezagutzeko asmoz, hitzordua eskatu zuen ekoizle batek. Asteasuko egoitzara etorri zen, eta UAGAREN programa azaldu zitzaion bertan. Ondoren, ekoizle haren gestoriarekin informazioa alderatzea adostu zen. Horrez gain, sindikatuak harekin hitzarmena sinatu zuen eta prebentzioaz arduratzen den enpresarekin harremanean jarri genuen ekoizlea.

Hainbat proiektu berri gauzatu dira aztergai dugun ekitaldian. Arabako Errioxan, esate baterako, hostoak kendu dira. Samaniegoko ardandegi batek eskatu du zerbitzu hori, langileak kontratatuzko eredu aldutzen saiatzen ari baita. UAGAREN lan-poltsako 13 lagun kontratatu ziren 15 eguneko kanpainan aritzeko. Mahatsondoetako hosto jakin batzuk kendu behar zituzten langileek.

Kontratazio-programa jendarteratzea eta haren kostuak

UAGA lanean ari da programaren helburuak betetzeko. Hala ere, nekazariei nahiz erakunde publikoei ez zaie iristen elkartearen jardunbideari buruzko informazio osoa. Hori dela eta, programari eta patata- nahiz mahats-bilketaren kanpainei buruzko triptikoak egitea erabaki zen. Kanpainetan zer egiten den eta jarduera horiek zer kostu duten laburbiltzen da triptiko horietan.

Nekazaritza-ustiatgiek, esaterako, ondoko kudeaketa-gastu hauek ordaindu behar dituzte:


- Patataren kanpainan: 24 euro kontratatutako pertsona bakoitzeko.
- Inausaldian, mahats-mordo gordinak biltzeko kanpainan, udaberriko kimaketan eta altsumak kentzeko kanpainan: Bi kontzeptu desberdin ordainduko dituzte: batetik, kontratatutako langileen batez bestekoa (20 euro kobratuko dira langile bakoitzeko) eta, bestetik, lanean aritutako jardunaldien kopurua (2,10 euro kobratuko dira kontratatutako pertsona bakoitzak kotizatutako jardunaldi bakoitzagatik).
- Piperminaren kanpainan, berriz, 20 euro ordainduko dituzte batez beste kontratatutako langile bakoitzagatik, eta 1,05 euro kotizatutako lanaldi bakoitzeko.
- Mahats-bilketan, ordea, 21 euro ordainduko dituzte batez beste kontratatutako langile bakoitzagatik, eta 2,20 euro kotizatutako lanaldi bakoitzeko.

Kontratazioari buruzko datuak


KANPAINA	2010	2009	2008	2007	2006	2005	2004	2003	2002	2001
INAUSKETA										
PARTE HARTU DUTEN USTIATEGIAK	10	19	18	11	17	23	22	0	0	0
LANGILE-KOPURUA	4	15	15	7	13	22	8	0	0	0
KONTRATU-KOPURUA	30	15	15	24	54	106	87	0	0	0
LAGAPEN-KOPURUA	30	53	28	0	0	0	0	0	0	0
LANALDI ERREALAK	187	623	792	239	403	542	442	0	0	0
UDABERRIKO KIMAKETA ETA ALTSUMAK KENTZEA										
PARTE HARTU DUTEN USTIATEGIAK	120	116	136	114	104	110	86	35	19	10
LANGILE-KOPURUA	129	159	171	122	110	111	91	31	21	5
KONTRATU-KOPURUA	480	159	171	584	427	517	387	257	92	50
LAGAPEN-KOPURUA	480	511	666	0	0	0	0	0	0	0
LANALDI ERREALAK	2346	2862	3594	2973	2585	2580	2266	905	442	
PATATA										
PARTE HARTU DUTEN USTIATEGIAK	14	10	17	27	29	23	18	10	1	1
LANGILE-KOPURUA	61	72	34	96	70	61	84	73	5	5
KONTRATU-KOPURUA	81	72	34	141	156	119	151	83	5	5
LAGAPEN-KOPURUA	81	89	97	0	0	0	0	0	0	0
JARDUNALDI ERREALAK	743	532	639	804	944	613	1050	835	45	45
MAHATS-BILKETA										
PARTE HARTU DUTEN USTIATEGIAK	135	139	142	133	119	113	62	44	26	16
LANGILE-KOPURUA	510	413	418	432	402	312	205	156	122	102
KONTRATU-KOPURUA	1420	413	418	1318	1305	1301	798	535	378	208
LAGAPEN-KOPURUA	1420	1336	1412	0	0	0	0	0	0	0
LANALDI ERREALAK	5704	5228	5458	4935	4555	4261	3427	2296	1409	
PIPERMINAK										
PARTE HARTU DUTEN USTIATEGIAK	2	2	3	0	0	0	0	0	0	0
LANGILE-KOPURUA	10	15	14	0	0	0	0	0	0	0
KONTRATU-KOPURUA	10	15	14	0	0	0	0	0	0	0
LAGAPEN-KOPURUA	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
LANALDI ERREALAK	783	783	684	0	0	0	0	0	0	0
MAHATS GORDINEN BILKETA										

PARTE HARTU DUTEN USTIATEGIAK	1	2	2	4	8	0	0	0	0	0
LANGILE-KOPURUA	3	6	4	3	20	0	0	0	0	0
KONTRATU-KOPURUA	3	6	4	12	41	0	0	0	0	0
LAGAPEN-KOPURUA	3	2	4	0	0	0	0	0	0	0
LANALDI ERREALAK	36	57	42	51	216	0	0	0	0	0

URTEKO KONTRATUAK GUZTIRA	2042	680	656	2079	1988	2070	1423	875	475	263
URTEKO LAGAPENAK GUZTIRA	2042	1997	2207	0	0	0	0	0	0	0
URTEKO LANALDI ERREALAK GUZTIRA	10066	10085	11533	9002	8756	8404	7185	4036	1896	
USTIATEGIAK GUZTIRA	282	288	318	289	278	271	188	89	46	27
LANGILEEN KOPURUA GUZTIRA	739	680	656	660	620	533	388	260	148	112



URTEKO L. E. (2001-2010)



Kanpainak

Inausketa

2009ko abenduaren 26an hasi eta 2010eko martxoaren 9an amaitu zen inausaldia.

Eskaeren kopuruan behera egin du nabarmen, zortzi ustiatetik besterik ez baitute parte hartu. Horren ondorioz, kontratatutako sasoikako langileen kopuruak eta kotizatutako lanaldi errealen kopuruak behera egin dute.

Inausketaren kanpaina gorabeheratsuak beherakada handia izan du 2010ean. Baliteke egoera ekonomikoak eragin izana, baina, egiazki, mintzagai dugun kanpainaren eta beste kanpaina txiki batzuen etorkizuna kinka larrian da. Sektorearen nahiz Arabako Errioxa eskualdearen egoera ezagutzen dute sindikatueta arduradunek. Haien ustez UAGaren programatik kanpo kontratatzen ari dira langileak. Lortu behar duguna da, beraz, programaren barruan egin daitezela kontratuak.

Bestetik, langile gutxiago kontratatu direnez, lanik gabe geratu dira UAGAk garai batean trebatutako eta eskarmentu handia duten inautsariak.

Udaberriko kimaketa eta altsumak kentzea

Maiatzaren 11 hasi eta ekainaren 23an amaitu zen udaberriko kimaketa eta altsumak kentzeko kanpaina.

Parte hartu duten ustiatetien kopurua: 120

Langileen kopurua: 129

Kontratuen kopurua: 480

Lanaldi errealen kopurua: 2346

Aurreko urtean baino ustiatetik gehiagok hartu dute parte kanpaina horretan. Hala ere, murriztu egin da kontratatutako pertsonen, kontratuen eta kotizatutako lanaldi errealen kopurua. Aurrekoan gertatu bezalaxe, horren arrazoia izan daiteke 2010ean bizi izan dugun egoera ekonomiko txarra; ahalik eta kontratu gutxien egin baitira. Alde batetik, gora egin dute udaberriko kimaketarako kontratu-eskaerak, baina behera egin dute, nabarmen, altsumak kentzeko kontratuen eskaerak. Izan ere, ustiatetik askok ez

dituzte altsumak. Are gehiago, hainbat ustiatetik lan horretarako beharginak eskatu zituzten eta, azkenean, ez zituzten kontratatu.

Lana banatzeko orduan, aurreko urteetan aritutako pertsonak kontratatzea lehenetsi du UAGAk. Horrela, aurreko urtekoaren antzekoa izan da lan-jardunaldien batez besteko kopurua.

Aurreko urteetako langile-talde berberak aritu dira. Horregatik, ez da beharrezkoa izan beharginak trebatzea.

Nabarmendu beharra dago, bestalde, Samaniegoko ekoizle batek programan parte hartu nahi duela. Ekoizle horren eskaera interesgarritzat jo dugu, batetik, kanpaina guztietan kontratatzeke modua errotik aldatu nahi duelako eta, bestetik, herri hartan azpikontratatzailerik asko daudelako. Saiakera ondo atera zen, eta gainerako kanpainetan ere parte hartu zuen ekoizleak.

Mahats gordinen bilketa

Abuztuaren 9tik 20ra lanean aritu diren hiru lagun kontratatu dira.

Patata

Guztira, 1.352.455 kilo patata bildu ziren honenbestean 2010ean. Eskuz bildutakoez gain, 1220 orduz aritu dira lanean uzta-makinak. Datuok 2009. urtekoekin alderatzen baditugu, ikusiko dugu kilo gutxiago bildu direla honenbestean eta, kontrara, ordu gehiago aritu direla makinak lanean (%25 gehiago).

Patatak biltzeko kontratatutako pertsona gehienak aurreko urtean arituak ziren, eta Gasteizen edota lan-sailak aurkitzen diren herrietan bizi dira. Langileen bi taldek Aguraingo bizitokian hartu dute ostatu. UAGaren lan-poltsako langileak dira azken horiek eta, Arabako kanpaina guztietan aritu ondoren, mahats-bilketan hartu zuten parte.

Joera orokorraren kontrara, aurreko urtean baino ustiatetik gehiagok hartu du parte patata-bilketan, eta aurreko urtean baino lanaldi gehiago kotizatu dira.

Gai guztietan zailena kanpaina kudeatzea izan da. UAGako langile iraunkorrak arduratu dira aurreko kanpaina kudeatzeaz. Aurreko ekitaldietan hauteman genuen oso zaila dela urtean urtero langile berriak prestatzea lanpostu horretarako. Gainera, pertsona bakar batek gauzatu behar ditu kudeaketako eginkizun guztiak; horixe lanpostuaren trazarik handiena. Patata-bilketa, gainera, mahats-bilketaren aldi berean gauzatzen da. Hortaz, UAGako teknikariek ezin dute behar beste lagundu patataren kanpaina kudeatzeaz arduratzen den langilea.

Hortaz, urtean urtero langileak trebatu beharrean, UAGako langileetako bat trebatuko da urtero patataren kanpaina kudeatzeaz arduratu dadin; horixe aukerarik onena. Hala ere, prestakuntzari ere garrantzi handiagoa eman litzaioke, prozedurak idatzi behar lirateke, eta egoera errealean adibideak jarri behar dira.

Piperminak

UAGaren kontratazio-programaren barruan da kanpaina hori 2008. urteaz geroztik. Gipuzkoako pipermin-ekoizleen beharrak asetzeko asmoz sortu zen kanpaina hori. Piperminen 11 ekoizleen egoera aztertu zuen Arogik. Azterlan horren arabera, pipermin-ekoizleen %100ek langileak behar zituzten piperminak biltzeko. Horrela, Usurbil, Donostialdean, Ibarra eta Goierrin 125 pertsona kontratatzea aurreikusitako zen.

Aztergai ditugun urteetan, ez da langile-eskaera hazi. Horren arrazoietakoa bat izan daiteke piperminak biltzeko langileen %62 bulgariarrak eta errumaniarrak direla eta, gaur egun, laneko baimenik gabe aritu daitezkeela beharrean. Ekoizleen arazorik handienetakoa bat, hala ere, langileentzako bizitokirik eza izan zen. Egungo egoera zein den jakin beharko genuke, sektore horretako beharrak zein diren jakiteko.

Piperminen bi ekoizlek hartu dute parte UAGaren programan. Kanpainaren beharretara egokitzeko asmoz, langile gutxiago kontratatu dituzte; 12, guztira. Uztailaren 19an hasi zen piperminak biltzeko kanpaina eta irailaren 23an amaitu. Kanpaina hastean, lehenengo bost lagunak kontratatu ziren.

Aurten ere, klaratarren Tolosako komentuan hartu dute ostatu piperminak biltzera etorritako sasoikako langileek. Alde horretatik ez zen arazo handirik izan. Hala ere, instalazioak zaintzeko eta garbitzeko ardura haiena zela gogoratu zitzaien langileei.

Bi ustiatagietako batek 2 langile eskatu zituen. Bi langile horietako bat 27 egunez aritu zen lanean; abuztuaren 2tik irailaren 23ra. Bestea, berriz, 20 egunez aritu zen; abuztuaren 2tik irailaren 12ra. Baliteke lehen ustiategi horretan ekoizpen arazoak gertatu izana; beste ekoizlearen langileak, batez beste, 37 egunez aritu baitziren lanean kanpaina berean.

Guztira, 24.735 kilo pipermin bildu ziren.

Mahats-bilketa

Mahats-bilketa normaltasunez egin bada ere, zenbait arazo izan dira, bereziki, langileentzako bizitokirik ez zelako. Administrazioaren aldetik, ordea, kanpaina gatazkatsua izan da 2010ekoa. Kontratuak ez dira egin PCU SL aldi baterako laneko enpresaren bidez, eta aurreko kudeaketa-sistema erabili da berriz ere. Kontua da enpresa hori sortu aurretik zeudenak baino nekazaritza-ustiategi eta sasoikako langile gehiago daudela orain.

Gainera, sasoikako lanaren Lanbideko departamentuaren laguntzaile bihurtu da UAGA eta, horren eraginez, lehen baino lan handia du erakundeak.

Arestian aipatu dugun moduan, bizitokirik eza izan da arazorik garrantzitsuenetako bat. Eskulanaren uanean uneko behar handia izan zenez, bizitokietan plaza gehiago behar izan ziren urriaren 10etik 15era. UAGAk kudeatutako bizitoki guztiak okupaturik zeuden eta, UAGaren lan-poltsako langileak kontratatu beharrean, Logroño, Fuenmayor, Cenicero eta Gasteizko langileak kontratatu ziren. Bizilekua lantokitik gertu izanik, lanera joan-etorria egin zuten egunero langileok.

Irailaren 21etik urriaren 24ra iraun zuen mahatsa biltzeko kanpainak; Gatzaga Buradonen hasi eta Lezan nahiz Samaniegon buka.

Gero eta baldintza gehiago jartzen dizkiete arandegiek ekoizleei. Esaterako, ekoizleek denbora gutxi dute mahatsa entregatzeko. Horren ondorioz, epearen barruan langilerik eskatu ez zuten nekazariak gure egoitzetara etorri ziren mahatsa biltzeko langile-taldeen eske. Oso zaila izan da nekazari horien eskaerei erantzutea.

Mahatsa biltzeko kanpainan baino ez da egon lan-ikuskapenik. Kasu guztietan, landako lantokietara joan dira bisitan Ikuskatzailtzakoak. Horrez gain, Gasteizko bulegoetan aurkeztu beharreko hainbat agiri eskatu dituzte. Ikuskapenetan nekazariari laguntzeko konpromisoa du UAGAk. Horregatik, ikuskapenak izan direnean hitzorduetara joan dira elkarteko ordezkariak, eskatutako agiriak eskuan. Zenbait kasutan, irizpide desberdinak erabili dira laneko arauak aplikatzeko orduan. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak, esaterako, alde aurretik hainbat bilera egiten ditu kontratazioak egitean zer irizpide erabili behar diren zehazteko. Ikuskatzailtzakoek, hala ere, zalantzak dituzte irizpide horien gain, eta horrek ziurtasunik eza sortzen du ikuskatutako nekazariengan. Horren eraginez, zalantzan jartzen da UAGaren egitekoa.

13.000.000 kilo mahats inguru bildu zituzten UAGaren programaren bitartez kontratatutako sasoikako langileek; 2009an baino milioi bat kilo mahats gehiago. Horiek biltzeko, hortaz, 2009an baino 100 pertsona gehiago kontratatu behar izan dira 2010ean.

Bizitokiak

Egoera orokorraren eta sektoreak bizi duen egoeraren eraginez, bizitokietan inbertsioak egitea ez da lehentasunezko auzia. Behar-beharrezko hobekuntza txikiak ez badira, bizitokiaren jabe diren nekazariak ez dute hobekuntzarik egin nahi. Bizitoki baten jabe ez direnek, berriz, ez dute etxe berria eraikitzeko asmorik. Hortaz, sasoikako langileentzako bizitokia lortzeko asmoz, UAGaren programan izena ematea nahiago dute nekazariak.

UAGAk, bere aldetik, ondoko prozedura honi jarraitzen dio sasoikako langileei bizitokia esleitzeko:

- Langileentzako bizitokia behar dutenen eskaerak jaso.
- Erabil daitezkeen bizitokiak zenbatu.
- Bizitokiak aztertu.
- Zenbat langile arituko diren eta langile horientzako bizitokirik den aztertu.
- Sasoikako langileei harrera egitea eta bizitokiak banatzea.

Aldaketa bat izan da taldeko egoitzen kudeaketan. Bizitokien koordinatzaile lanpostua kendu da. Lezako eta Aguraingo bizitokietan langile asko bizi dira. Horrela, elkarbizitzaren eta garbitasunaren gutxieneko arau batzuk betetzeko asmoz, bizitokien koordinatzaileak bi herri horietako bizitokiak kontrolatzen zituen. Hala ere, Lezako bizitokian egindako aldaketa baten ondorioz, lehen baino lagun gutxiago sartzan dira mintzagai dugun bizitoki horren hiru modulutan. Hortaz, UAGAk teknikariek erraz izan ditzakete kontrolpean.

Arazo handiak izan dira mahats-bilketan bizitokien faltagatik. Langileak bizitokietan kokatu ondoren, langile gehiagoren beharra izan zen. Baina bizitoki hutsik ez zegoenez, ezin izan zen eskualdetik kanpoko langilerik kontratatu.

UAGAk lan-poltsako bi lantaldek erabili dute Aguraingo bizitokia.

Nekazaritza-ustiategi kontratatzaileak hartzen du bere gain kontratatutako pertsonentzako ostatuaren kostua. UAGAk nekazariari kobratzean die langileen ostatu hartzea eta, ondoren, bizitokiaren jabeari ordaintzen dio. Bizitokiaren jabe nekazaritza-ustiategi bat denean, harremana arautzeko klausula berezia gehitzen da parte-hartze konpromisoan. Lezan, ordea, bada kudeaketaren baldintzak zehazten dituen hitzarmen bat.

1.1.2. AZPIKONTRATAZIOAREN, LEGEZKOTASUNAREN, ETA HAINBAT KONTUREN GAIN NEKAZARIAK SENTSIBILIZATZEKO KANPAINA

Arduraduna: IMK

Sasoikako Lanaren Arretarako II. Plan Integrala ezagutzera emateko eta nekazariak hari buruz sentsibilizatzeko asmoz hainbat saio egin ziren: irailaren 15ean Agurainen; irailaren 15an Oionen; eta irailaren 20an Guardian. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko ordezkari batek koordinatutako jardunaldi horietan, hainbat erakundetako ordezkariak izan ziren; artean: Lanbide, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Arabako Probintzia Zuzendaritza; Itsasmendikoi; UAGArek nekazaritza-sindikatuak, eta Guardiako Ertzaintza. Jardunaldi horietan parte hartzeko eskatu zitzaion Lan Ikuskatzailetzari, baina ez zuen etortzerik izan.

Patata- eta mahats-bilketaren kanpainarako abian jarritako zerbitzu nagusiei buruzko informazioa eman zen bilera horietan, baita ondoko gai hauek jorratu ere:

- Nekazariak kontzientziatzea ondoko gai hauei buruz:
 - Lanean **hasi aurretik**, sasoikako langileei Gizarte Segurantzaren alta ematea eta kontratazioari dagozkion izapide guztiak egitea.
 - Legez lan egiteko baimena duten pertsonak kontratatzea (baimen-motak eta lan-baimenak).
 - 16 urtetik beherakoek lanik egin ez dezatela.
 - Eskulana kontratatzean legez kanpoko bitartekaritza ekiditea (azpikontratazioa).
 - Kontratututako pertsonen soldata eskura emateko ohitura.
 - Gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen dituzten bizitokiak eskaintzea.
 - Gehiegikeriak salatzea.
 - Eskolatu gabeko adingabeak izanez gero, gizarte-zerbitzuei horren berri ematea.
- Jatorrian kontratatzea, sasoikako lanetan (kanpainetan) sor daitezkeen arazoak ekidin edo gutxitzeko asmoz.
- Nekazaritzako sasoikako langileentzat bizitokiak sortu edo egokitzeko Eusko Jaurlaritzak ematen dituen *laguntzen* eta *diru-laguntzen* berri ematea.
- Lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia ezagutaraztea.

Guardian izan ezik, ez da nekazari askorik agertu informazio-saioretara. Kontratazioarako egin beharreko izapide guztiak administrazioak jartzen dizkien trabak besterik ez direla uste dute nekazariak, eta izapide horiek beren ustiategiaren etorkizuna kinka larrian jartzen dutela.

2010eko iraila eta urria bitarte, 869 nekazaritza-enpresek eman zuten alta edo jardunari ekin zioten. Hala ere, hizpide ditugun hitzaldietara 43 lagun baino ez ziren agertu. Horrela, Gobernuaren Arabako Ordezkariordetzak adierazi du, Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Erregimen Bereziaren gain eragina

duzen legezko arau berriak egon ezean, nekazaritzaren alorreko enpresaburuei mahats-bilketaren aurretik ematen zaizkien hitzaldiak egiten jarraitzeko aukera aztertu beharko dela, horietan ez baitu jende askorik parte hartzen.

Komeni litzateke, ordea, bulego profesionalekin nahiz sindikatuekin mahats-bilketaren aurretik egiten diren koordinazio-bilerak egiten jarraitzea. Eragile horiek, besteak beste, DIE bidezko afiliazioak eta kotizazioak izapidetzen dituzte.

1.2. DAGOZKION LAN-IKUSKAPENAK EGITEA

1.2.1. SASOIKAKO LANGILEEN KONTRATUEN ETA LAN-BALDINTZEN IKUSKAPENA

Arduraduna: Gobernuaren Ordezkariordeza Araban

- Gauzatutako ekintzei eta hartutako neurriei buruz Lan Ikuskatzailetzak egindako txostena

Indarrean diren arauak bete behar dituztenek arauok betetzen dituztela egiaztatzeko eta kontrolatzeko asmoz, hainbat ikuskapen programatzen eta antolatzen dituzte Laneko Ikuskatzailetzaren Buruzagitzak eta Arabako Gizarte Segurantzak urtero, Arabako Errioxan mahatsa biltzeko 2010eko kanpaina dela-eta.

Jarraipen-lan horietarako, ikuskatzaile batez eta bi ikuskatzaileordez osatutako ikuskatzaile-taldeak sortu ziren. Estatuko Segurtasun Indarretako (Polizia Nazionaleko) hainbat kidek lagunduta, Arabako zenbait herritan izan ziren aditu horiek.

47 lursail eta enpresa bisitatu zituzten, mahatsa biltzeko prozesua aztertu zuten, eta arauetan aurrez ikusitakoarekin bat etorritik lanak gauzatzen ote diren egiaztatu zuten.

Jakina denez, Arabako mahats-bilketak iraupen laburra izaten du, eta kanpainaren hasiera-data eta iraupena aldatu egiten dira urtean urtero. Hala ere, aurreko urteetan ikasitakoaren arabera eta tradizionalki egin izan den bezala, kanpaina hasi aurretik osatu ziren lantaldeak, kanpaina hastean lanari ekin ahal izateko.

Ikuskatzailetzako taldeek txandaka bisitatu zituzten enpresak eta herriak. Beraz, kanpaina guztia ikuskatu ahal izan zuen Ikuskatzailetzak eta, aldi berean, taldeetako bat beti prest zegoenez, sor zitezkeen kexei modu eraginkorrean erantzuteko aukera izan zuen. Hala ere, aipatu beharra dugu kexa-kopurua oso txikia izan zela.

2010eko irailaren amaieratik urriaren 21era egin ziren mahats-bilketako ikuskapenak, Polizia Nazionalearen Buruzagitza Nagusiarekin koordinatuta.

Aurreko urteetan baino arau hauste gehiago hauteman ziren 2010ean.

Guztira 47 zerbitzu-agindu gauzatu ziren eta hainbat ikuskapen egin ziren mahasti gehien dauden Arabako Errioxako herrietan.

Honako herri hauetara joan ziren ikuskatzaileak: Guardia, Oion, Serna, Asa, Lantziego, Kripan, Eltziego, Páganos, Mañueta, Samaniego, Eskuernaga, Biasteri, Lapuebla de Labarca, Navaridas, Leza eta Las Carretas. 2010eko urriaren 5ean hasi eta urriaren 21ean amaitu zituzten ikuskatze-bisitak.

Kontratazioa, soldatak, legez kanpoko lana, segurtasuna, eta laneko osasuna aztertu zituzten.

Zehazki, ondoko gai hauek aztertu ziren ikuskapenetan:

1.-**Lan-harremanak:** Soldatak ordaintzea; eskulana lagatzea; zerbitzu-enpresak; lanaldiak; lan-merkatuan adingaberik edo bitartekorik izan den; lan-kontratuak.

2.- **Gizarte Segurantzza:** Altak, bajak, eta kotizazioak.

3- **Langile atzerritarrak:** Dagokien lan-baimena edukitzea.

4.- **Lan-arriskuen prebentzioa:** Arriskuen ebaluazioa eta antolaketa prebentiboa izatea; lanerako tresnak eta haien erabilera kontrolatzea; eta norbanakoak babesteko bitartekoak izatea eta erabiltzea.

Laneko segurtasunaren eta osasunaren esparruan 59 jarduera gauzatu ziren. Jarduera horien ondorioz, arau-hausteen 3 akta egin ziren (6.260 €guztira), eta 27 errekerimendu.

Gizarte Segurantzako afiliazioen, alten, eta kotizazioen alorrean 60 egiaztapen gauzatu ziren. Ikuskapenen ondorioz, lau langile altan eman zituzten enpresariak, eta 10 arau-hauste akta egin ziren, nekazariak Gizarte Segurantzaren alta eman ez zituztelako hainbat langile. Bestetik, kuotak ordaintzeari buruzko akta bakar bat egin zen, 149,44 eurotan, eta 10 langileri zegokiena.

Azkenik, langile bat bajan eman zen Gizarte Segurantzaren.

4/2000 Legeari eutsiz, besteren kontura lanean aritzeko baimenak aztertu ziren. 25 ikuskapen egin ondoren, arau-hauste akta bat ireki zen, 10.001 eurotakoa eta langile bakar bati dagokiona.

Horrez gain, laneko 83 kontratu aztertu ziren, eta lan-kontratua aldatzeko bi errekerimendu egin ziren. Laneko kontratuetako irregulartasunengatik arau-hausteen aktarik ez zen egin.

Beste era bateko jarduerengatik arau-hausteen akta bat egin zen, 626 eurotan.

220 ikuskapen egin ziren guztira. Horien ondorioz, 26 errekerimendu eta arau-hausteen 15 akta egin ziren. Akta horiek 29 langileri eragin zieten, eta haien zenbatekoa 23.025 € izan zen.

Bereizi behar dira bisiten kopurua eta bisitatutako zentroak, batetik, eta ikuskapenen kopurua, bestetik, sarritan bisita berean ikuskapen bat baino gehiago egin baitira (Lana, Enplegua, Gizarte Segurantza eta Laneko Segurtasuna eta Osasuna).

2009an gertatu bezalaxe, aurreko urteetan baino arau-hauste gutxiago izan ziren 2010ean; atzerri-gaietan, batez ere.

Arazoak ditugu, oraindik ere, langileen eskubideak urratzen dituzten bitartekariarekin. Azken horiek gero eta profesionalagoak dira eta, ondorioz, zaila da frogatzen haien esku-hartzea.

Aurten ere ikuskapen-kanpaina egitea erabaki dugu. Noizbait, eguraldiaren eraginez kanpaina luzatu bada ere, mahats-bilketaren kanpaina gero eta laburragoa da, batez ere, bilketa mekanizatu egin delako.

Aipatu beharra dago, baita ere, ia salaketarik ez zela jarri 2010ean.

Europar Batasunetik kanpoko atzerritar gutxi aritu ziren 2010eko mahats-bilketan. Portugesak eta espainiarrak ziren langile gehienak; ijitoak, horietako asko.

Hainbat bilera egin ziren UAGArekin. Kontuan izanda langileek izena eman behar dutela lanean hasi aurretik, laneratutakoen zerrenda goizean goiz FAX bidez bidaltzea eskatu genion UAGari, langileak alta emanda daudela egiaztatzeko asmoz. Horrez gain, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean egin beharreko izapide guztiak egin behar ziren goizean barrena.

Bizitokiei dagokienez, UAGari emandako informazio berbera eman zuen, berriz ere, Lan Ikuskatzaitzak (jarraian aztertuko dugu informazio hori). Bizitokien auzia arautzen duen taldeko hitzarmenik ez da sektorean. Horregatik, enpresaburuek langileentzako bizitokia lortu duten ala ez ezin kontrola dezakete Lan Ikuskatzaitzak eta Gizarte Segurantzak.

Erabili beharreko kontratu-motari dagokionez, Lan Ikuskatzaileek independentzia teknikoak dihardutela ikusi da. Ez dago argi zer eratako kontratu-mota egin behar den: obra- edo zerbitzu-kontratua, ala ekoizpen-egoeraren araberrako kontratua. Jurisprudentziari helduz, bi era horretako kontratuak aplikatzearen aldeko eta kontrako argumentuak daude. Bietan ondoen aplikatu daitekeena obra- edo zerbitzu-kontratua da. Kontratu-modalitate horretan, hala ere, arazo bat dago, alde aurretik zehaztu behar baita kontratua zer egunetan amaituko den, eta mahats-bilketaren kanpainen, esaterako, ezin da zehaztu. Hain zuzen ere, aurreko paragrafoan azaldutako arrazoietatik egin dira hasira batean egindako kontratuaren mota aldatzeko 2 errekerimendu. Ez da arau-hauste aktarik egin kontratu-mota bat ala beste egin izanagatik; soilik errekerimenduak.

Gobernuaren Arabako Ordezkariordeak hala eskatuta, aurtengo kanpainen zer irizpide erabiliko diren galdetuko zaio Lan Ikuskatzaitzaren Zuzendaritza Orokorriari. Hark emandako erantzuna ikuskatzaileei eta ikuskatzaileordeei jakinaraziko zaie.

Orokorrean, lan-egiteko baldintzak urtez urte hobetzen ari dira. Langileekiko dituzten betebeharrei buruzko informazioa helarazten diete Erakundeek eta Lan Ikuskatzaitzak enpresei eta hori da, hain

zuzen ere, baldintza horiek hobetzearen arrazoietakoa bat. Horrez gain, enpresariak badakite Lan Ikuskatzaileak, urtero egin ohi duen moduan, ikuskapenak egingo dituela kanpainak irauten duen bitartean eta, beraz, beren jarduna kontrola dezakeela.

Mahats-bilketaren kanpainan Gizarte Segurantzara afiliatutako eboluzioari buruzko txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren Arabako Zuzendaritza Probintzialak egina.

A- 2010EKO KANPAINAKO GIZARTE SEGURANTZAKO NEKAZARITZAKO ERREGIMEN BEREZIAREN ALTAK ETA BAJAK

2010eko mahats-bilketak iraun zuen hilabeteetan (hots, urriaren 31ra arte), sasoikako 20.822 langile afiliatu ziren Nekazaritzako Erregimen Berezian (NEB). Guztira, 30.354 pertsona afiliatu ziren Nekazaritzako Erregimen Berezian urriaren 31ra arte. Hortaz, esan genezake urte osoan Nekazaritzako Erregimen Berezian afiliatzen diren pertsona guztien %70 mahats-bilketako sasoikako langile direla.

2010eko iraila eta urria bitartean NEBn afiliatutako 20.822 langileetatik 19.954k DIE bitartez eman zuten izena eta 868k (%4,16) Gizarte Segurantzaren Administrazioaren bitartez.

Aurreko mahats-bilketetan gertatu bezala, kanpaina honetan alta eta baja izapidetu zaien langile gehienak atzerritarak dira. Europar Batasunekoak dira batzuk (portugesak gehienbat) eta Batasunetik kanpokoak besteak; langile espainiarrak, aldiz, gutxien dira.

Hala ere, sarritan langile horiek beren afiliazio-zenbakia eta Atzerritarren Identifikazio Zenbakia (AIZ) zein den ez dakitenez, zaila izaten da alta eta baja horiek elektronikoki izapidetzea. Langile horietako asko alde aurretik nekazaritza-kanpainetan aritu badira ere eta afiliazio-zenbakia eduki arren, askotan ez dakite zer zenbaki duten, edo alta eskatzean ez dute aurkezten. Horren ondorioz, langile horien altak eta bajak izapidetzeak luze jotzen du, ezinbestekoa izaten baita Afiliazio Zenbakia (AFZ) aurkitzea edo berri bat ematea.

Afiliazio-zenbakia aurkitu eta esleitzeko arduraduna Laudioko 0102 Administrazioa da.


Gasteizko 0101 administrazioa, berriz, langileen altak, bajak eta aldaketak izapidetzeaz eta suertatutako arazoak konpontzeaz arduratzen da.

Aipatu beharra dago, halaber, arazo tekniko bat izan dela DIE sistemarekin, eta langileen alten eta bajein inguruan arazo asko ekarri dituela horrek. Langileen alten eta bajein fitxategiak bidaltzen dituzte baimendutako DIEek. Urriko lehen astean, ordea, fitxategi horiek ez ziren garaiz prozesatu eta, ondorioz, arazo ugari sortu ziren (aurretik bajein ez ziren langileak altan eman ziren, aurretik altan ez ziren langileak bajein, eta abar). Arazo horiek eskuz konpondu behar izan zirenez, ohi baino lan gehiago izan zen.

- DIE SISTEMAREN ERABILERA

Mahatsak biltzeko sasoiak gora egiten du altan eta bajein eman beharreko langileen kopuruak. Horren eraginez, beste sasoiak baino gutxiago erabiltzen da mahats-bilketan DIE sistema. Nekazaritzako Erregimen Berezian, hileko 1.195 alta eta baja izapidetzen dira batez beste. Irailean ordea, 2.433 izapide egin ziren; eta urriaren, berriz, 18.389. Izapide horien guztien %4,16 paper-gainean egiten dira; gainerakoak guztiak DIE sistemaren bitartez.


Urte urte gehiago erabiltzen da DIE sistema nekazaritzako langileen afiliazioarekin lotura duten izapideak egiteko. Hala ere, DIE sistema afiliazioak izapidetzeko erabiltzen dutenen kopuruak behara egiten du mahatsa biltzeko kanpainan (urteko beste sasoiaren aldean): 2003. urtean, %74,58tik %13,90ra (%60,68ko beherakada); 2004an, %81,78tik %16,93ra (%64,85eko beherakada); 2005ean, %85,64tik %65,74ra (%19,90eko beherakada); 2006an, %96,86tik %85,20ra (%11,66ko beherakada); 2007an, %97tik %90,47ra (%6,53ko beherakada); 2008an, %93,67tik %89,86ra (%3,81eko beherakada); 2009an, %98,07tik %96,41era (%1,66ko beherakada); eta 2010ean, %99,35etik %95,82ra (%3,53ko beherakada). Beraz, mahats-bilketan afiliazioak izapidetzeko DIE sistema erabiltzen dutenen kopuruaren goranzko joera hautsi egin zen 2010ean, eta 2008. urteko balioetara bueltatu zen.




2004tik 2010era, gora egin du, baita ere, mahats-bilketako kotizazioak izapidetzeko DIE sistema erabiltzen dutenen kopuruak. Iraila eta urria bitartean, hala ere, gora egiten du DIE sistema erabil dezaketen nekazaritzako enpresen kopuruak eta, askok erabiltzen ez dutenez, behera egiten du sistema horren erabilera proportzionalak. DIE sistema erabil dezaketen enpresei gehitu behar zaie, baita ere, soilik mahats-bilketan altan diren enpresak. Azken horiek, ordea, ez dute DIE sistema erabiltzen eta, erabiltzekotan, Erregimen Orokorreko enpresek baino gutxiago erabiltzen dute. Faktore horien eraginez, mintzagai dugun sistemaren erabilera proportzionala murrizten da.

Kotizazioak DIE sistemaren bidez izapidetzen dituztenen kopurua murriztu egiten da mahats-bilketaren sasoiari. Hala ere, urteko beste sasoiekin alderatuta mahats-bilketan izaten den beherakada hori urte urte txikiagoa da: 2004an, %97,11tik %94,28ra (%2,83ko beherakada); 2005ean, %97,63tik %95,73ra (%1,9ko beherakada); 2006an, %97,86tik %97,42ra (%0,44ko beherakada); 2007an, %98,63tik %98,25era (%0,38ko beherakada); 2008an, %99,36tik %98,85era (%0,51ko beherakada); eta 2009an, %99,66tik %99,50era (%0,16ko beherakada).

2010ean, aitzitik, hautsi egin zen 2004an hasitako goranzko joera hori: DIE-sistemaren bidez izapidetutako kotizazioen kopurua %94,25etik %74,49ra, hau da, %19,76 murriztu baitziren mahats-bilketaren sasoiari.



USO SISTEMA RED COTIZACION-MESES DE VENDIMIA




C- AFILIAZIOA:

Ohikoaz bestera, 2010eko kanpainan behera egin du DIE sistemaren bidez izapidetutako afiliazioen eta kotizazioen kopuruak:

- Afiliazioari dagokionez, 2004. urteaz geroztik etenik gabe egin du gora afiliazioak izapidetzeko DIE sistema erabili dutenen kopuruak. 2010ean, ordea, gora egin zuen paperean izapidetutako afiliazioen kopuruak (%3,85etik %4,16ra) eta, ondorioz, DIE sistemaren erabileraren goranzko joera hautsi zen.
- Kotizazioarekin gauza bera gertatu zen. 2004ean hasitako goranzko joera 2010ean eten zen.

MOVIMIENTOS TRAMITADOS EN PAPEL



Polizia Nazionalak gauzatutako ikuskapenei eta hartutako neurriei buruzko txostena

Polizia Nazionalaren Atzerritarren eta Mugen Brigadak 17 herritan gauzatu zituen ikuskapenak 2010eko mahats-bilketaren kanpainak iraun bitartean.

538 pertsona identifikatu ziren guztira; ez zen atzerritarrik atxilotu; eta ez zen atzerritarrik kanporatu nazio-lurraldetik. Aurreko urtean baino pertsona gehiago identifikatu ziren 2010ean (354 pertsona identifikatu baitziren 2009an).

Laneko Ikuskatzailatza Probintzialak eta Atzerritarren nahiz Mugen Arabako Brigada Probintzialak hainbat ikuskapen gauzatu zituzten biek elkarrekin Arabako Errioxako 2010eko mahats-bilketan. Ikuskapen horiek ondoko emaitza hauek ekarri zituzten:

"2010EKO MAHATS-BILKETAREN" KANPAINA.

ATZERRITARREN ETA MUGEN BRIGADA PROBINTZIALA. ATZERRITARREN TALDE OPERATIBOA. VITORIA-GASTEIZ.

DATA	LEKUA	SOILIK IDENTIFIKATUAK	ATXILOTUAK	GUZTIZKO PARTZIALAK	NAZIONALITATEAK:	
					IDENTIFIKATUAK	ATXILOTUAK
2010.10.5	OION GUARDIA	49	0	49	18 espainiar Errumaniar 1 22 portugesez Nigeriar 1 7 ghanatar	-
2010.10.7	OION SERNA ASA	84	0	84	46 espainiar 9 errumaniar 20 portugesez 9 marokoar	-
2010.10.8	SAMANIEGO ESKUERNAGA MAÑUETA SERNA	79	0	79	53 espainiar; 26 portugesez	-
2010.10.13	KRIPAN LANTZIEGO BIASTERI	30	0	30	17 espainiar; 3 portugesez; 7 marokoar 3 ghanatar	-
2010.10.14	GUARDIA PÁGANOS	80	0	80	21 espainiar; 44 portugesez; 4 bulgariar, errumaniar Ekuadortar 1; 8 marokoar; Pakistandar 1 Ghanatar 1	-
2010.10.15	ELTZIEGO LAPUEBLA DE LABARCA GUARDIA	28	0	28	7 espainiar; 7 portugesez; 14 marokoar	-
2010.10.18	SAMANIEGO MAÑUETA ESKUERNAGA	35	0	35	13 espainiar; 8 portugesez; 2 marokoar Mexikar 1 2 bolikostar 7 maliar Britainiar 1 Gambiar 1	-
2010.10.19	SAMANIEGO LEZA	99	0	99	34 espainiar 23 marokoar 40 portugesez 2 errumaniar, lituaniar	-

2010.10.21	SAMANIEGO NAVARIDAS LAS CARRETAS	54	0	54	17 espainiar 15 marokoar Aljeriar 1 2 senegaldar Boliviari 1 Portuges 1 4 gambiar 7 maliar Bolikostar 1 3 italiar Britainiar 1	-
	GUZTIRA	SOILIK IDENTIFIKATUAK	ATXILOTUAK	BATURA		
		538	0	538		

Lerro honen azpian identifikatutako pertsona guztien zerrenda jaso dugu, nazionalitateen arabera sailkatuz:

- 226 espainiar
- 134 portuges
- Pakistandar 1
- 78 marokoar
- 14 maliar
- 2 senegaldar
- Ekuadortar 1
- 3 bolikostar
- Aljeriar 1
- 16 errumaniar
- 2 britainiar
- 3 italiar
- 5 gambiar
- 11 ghanatar
- Nigeriar 1
- Mexikar 1
- Boliviari 1

Azterritar guztiak nazio-lurraldean bizi direla eta lan- nahiz bizileku-baimenak dituztela egiaztatu du poliziak.

1.2.2. SALAKETAK JARTZEKO MEKANISMOAK MARTXAN JARTZEA

Arduraduna: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila.

Immigrazio Zuzendaritzak bazuen Heldu izeneko zerbitzu bat immigranteei laguntza juridikoa eskaintzeko. Helduren bidez jarri izan dira salaketak 2010eko uztailaren 15era arte. Egun horretatik aurrera, alabaina, Immigranteei Laguntza Eskaintzeko Immigrazio Zuzendaritzako Koordinazio-unitateak hartzen ditu legez kanpoko egoeran diren eta laguntza juridikoa behar duten immigranteen dei guztiak. Zuzendaritzan, gainera, bada profesionalen talde bat immigranteei banan-banakako laguntza eskain diezaiekeena. Sasoikako lanarekin lotura duen salaketarik ez da egon.

1.3. LANBIDE-HEZIKETA SUSTATZEA

Arduraduna: Itsasmendikoi S.A.

Prestakuntza trinkoaren eta etenik gabeko prestakuntzaren hainbat ikastaro eskaini ditu Itsasmendikoi zentroak 2010ean. Ikastaro horien artean, mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektoreko lan-arriskuak prebenitzeko bat eskaini zuen. Ikastaroaren hartzaileek, edonola ere, ez dute hartan parte hartu nahi izan. Aurreko urteetan egin dute sektoreko enpresaburu askok mintzagai dugun ikastaroa, eta uste dugu horrexegatik ez dutela hartan parte hartu. 2011n, alabaina, berriz ere eskainiko da ikastaroa, sektoreko enpresaburu berrien eta ikastaroa egin ez dutenen beharrak asetzeko.

1.4. LAN-POLTSA MANTENTZEA

1.4.1. INFORMATIKAKO EUSKARRI ESPEZIFIKOA EGUNERATZEA

Arduraduna: IKT

Administrazio-kudeaketa

Transferitzeke zeuden A3 tresnako datuak lekuz aldatzen amaitzea eta tresna erabiltzen hastea. Urtehasieran gauzatutako bi jarduera horiek kenduta, 2010ean ez da beste ekintzarik gauzatu mintzagai dugun arloan; eta 2011n ere ez da egingo.

Sasoikako lanaren kudeaketa

Mintzagai dugun aplikazioa kanpaina oso batean erabili zen 2010ean. UAGAKo teknikariek hobetu beharreko hainbat alderdi hauteman zituzten eta, ondorioz, aplikazioan aldaketak egin ziren.

Aplikazioa hobetzeko asmoz, ondoko aldaketa hauek egin zituzten teknikariek:

- Hainbat aldaketa aplikazioan, ahalik eta emaitzarik onenak lortzeko asmoz.
- Hainbat aldaketa *sasoikako langileen taldea* izeneko moduluan. Zehatz esatera, UAGAKo langileen eskarmentuaren arabera bistaratuko da informazioa pantailan.
- "Bidalitako langileei", "langile-taldee" eta "kanpainei" buruzko txostenak. Administrazio txostenak osatu eta horietan aldaketak egin ziren, eguneroko jardunean lagungarri izango zaizkielakoan UAGAKo langileei.
- Sasoikako langileei buruzko txostena. Aurkeztutako informazioa alde aurretik ezarritako formatura egokitzeko asmoz, hainbat aldaketa egin ziren sasoikako langileei buruzko txostenean.
- UAGAKo langileei laguntza eskaintzea mahats-bilketa hastean.
- Jazoerak kudeatzea. Aplikazioarekin lotura duten jazoeratan irtenbideak eta laguntza eskaintzea.

1.5. SASOIKAKO LANAREN NEKAZARITZA-HITZARMENA NEGOZIATZEA

Arduradunak: Hainbat gizarte-eragile

Sindikatuak eta enpresaburuek dute laneko hitzarmenak egiteko ardura; haiek ez beste inork egin dezakete era horretako hitzarmenik. Baina gizarte-eragile horiek sasoikako lanaren hitzarmena egiteko beharra hauteman badute ere, sasoikako lanari buruzko hitzarmenik ez da nekazaritzaren alorrean; ez probintzian (Arabako, esaterako) ez eta Euskadin ere. Euskadin, gainera, sasoikako langileak erabiltzen hasi dira beste eremu batzuetan ere, Gipuzkoako piperrina biltzeko, adibidez.

1.6. INFORMAZIO-BULEGOEN SAREA MANTENTZEA

Arduraduna: IMK

Agurainen, irailaren 1etik urriaren 31 bitarte, *Nekazaritzako Sasoikako Lanari buruzko Informazio-bulegoa* zabalik izan zen.

Eltziegon, nekazaritzako sasoikako Lanari buruzko beste informazio-bulego bat zabalik izan zen irailaren 16tik urriaren 30era arte.

Planeko ekintzak oinarri hartuta, eta horiek betetzeko asmoz, Nekazaritzako Sasoikako Lanari buruzko Informazio Bulegoetan ondoko gai hauei buruzko zalantzak argitzeko aukera izan zuten erabiltzaileek:

- Sasoikako langileek
 - Lan-aholkularitza
 - Segurtasunari eta Lan Osasunari buruzko aholkularitza
 - Gizarte Laguntza
 - Lan egiteko ezinbesteko baimenak egiaztatu ondoren, lan-poltsan izena emateko aukera.
- Nekazari kontratatzaileei:
 - Gizarte eta lanerako laguntza
 - Segurtasunari eta Lan Osasunari buruzko aholkularitza

Hainbat ekintza gauzatu ziren bulegoen egitekoaren eta funtzionamenduaren berri emateko, besteak beste: prentsaurrekoa egin zen; bilera informatiboak egin ziren nekazariekin; txartelak eta kartelak banatu ziren; bandoak argitaratu ziren Arabako Errioxako udalerrietan; Radio Riojako irratsaio batean parte hartu genuen; iragarkiak jarri genituen hainbat egunkaritan; eta abar.


Eltziegoko bulegoa

Erakunde Arteko Mahaiko bileretan erabakitakoari helduz, 2010eko kanpainan estreinakoz, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorreko langileek ez zuten Eltziegoko bulegora joan behar izan GSDOrekin egin beharreko izapideak gauzatzeko. Nekazariak ez daude pozik erabaki horrekin, uste baitute urtez urte gero eta oztopo gehiago dituztela egin beharreko izapide guztiak egiteko, eta beren betebeharrak egoki betetzeko UAGArri edo gestoriei laguntzarik eskatu gabe. UAGAk kontratatutako pertsonak ondo egin ditu ohiko eta oinarritzko izapideak. Zenbait izapide, ordea, ezin izan ziren egin (DIE Zuzenarekin lotura dutenak, esaterako), eta beste batzuk zailak dira egiten. Kotizazio-kontuko kode berriak lortzeko, adibidez, GSDOk fax edo telefono bidez erantzuteko zain egon behar dugu ezinbestean. Zain egon behar izate horrek atzeratu egiten du prozesua, eta nekazariak urduri jartzen dira.

GSDOko hainbat langilek eta UAGAk bilera monografikoa egin zuten mahats-bilketaren kanpaina hasi aurretik. Bilera hartan aritu ziren, bereziki, 2010. urtera arte Eltziegora joandako GSDOko Zuzendaritza Probintzialeko funtzionarioen eginkizunei buruz. Bilera hartan azaldu zen, baita ere, legezko zer baldintza bete behar dituzten enpresek eta langileek besteren konturako Nekazaritzako Erregimen Bereztian sartzeko. Horrez gain, hainbat eredu eta orri egoki betetzeko argibideak eman ziren. Azalpen horiek emateaz gain, hainbat jarduera koordinatu ziren bilera hartan. Zehaztu zen, adibidez, Eltziegoko bulegoan aurkeztutako agiriak egunean bertan fax bidez bidali behar direla Gizarte Segurantzaren Arabako 0101 Administrazio-bulegora.

Bilerara agertzeko deia egin zitzairen, baita ere, Arabako Errioxan aritzen diren eta DIE sistema erabiltzen duten sindikatu eta profesionalen bulegoei. Mintzagai dugun bilera horretan, halaber, sindikatu, profesionalen bulego eta Diruzaintzaren Zuzendaritza Probintzialaren jarduera-irizpideak koordinatu eta bateratu ziren, arazoak ahal beste murrizteko eta DIE sistemaren bitartez bidaltzen diren datuen kalitatea hobetzeko. Zuzendaritza Probintzialak, DIE sistemaren onurak aipatzeaz gain, behin eta berriz adierazi zuen onura horiek profesionalen bulegoei eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorri eragiten dietela.

Bestetik, aipatu beharra dago GSDOrekin lotura duten hainbat gairi buruzko zerbitzuak eskaintzen direla Eltziegoko bulegoan. Enpresaburuek, hala ere, urtez urte gutxiago erabiltzen dituzte zerbitzu horiek. Paragrafo honen azpian ageri den grafikoan ikus daitekeen moduan, aurreko urteetan baino askoz gutxiago erabili dira zerbitzu horiek 2010ean.



335 lagunen zalantzak argitu dira Eltziegoko bulegoan: sasoikako 192 langile eta 143 nekazarirenak.

2009 ETA 2010 URTEETAN BULEGORA JO ZUTENEN ESTADISTIKA

	2009 (09/10/30era arte)			2010 (10/10/30era arte)		
	Bul.	Tel.	Guztira	Bul.	Tel.	Guztira
Sasoikako langileak	173	90	263	127	65	192
Nekazariak	125	14	139	117	26	143
Guztira	298	104	402	244	91	335

Guztira, aurreko urtean baino lagun *gutxiago* jo zuten laguntza-eske bulegora 2010ean. Nekazariari eskainitako laguntzen kopuruak pittin bat gora egin badu ere, sasoikako langileekin ez da gauza bera gertatu eta, ondorioz, behera egin du eskainitako laguntza-zerbitzu guztien kopuruak.

Itxura denez, **sasoikako langileek** ez dute uste bulego horretara joanez lana aurkituko dutenik, beste sektoreetan gero eta langabetu gehiago baitago eta azken urteotan ez baitute lanik lortu bulego horren bidez. Hala ere, sasoikako zenbait langile urtero joaten dira bulegora.

158 lagunek eman dute izena lan-poltsan. Bulegoan bertan eman zuten izena 103 lagunek eta doako telefonoaren bitartez, berriz, 55ek. Hortaz, bulegora joandako sasoikako langile guztien %82,29 lan-poltsan izena emateko asmo zuten. Sexuei dagokienez, lan-poltsan izena eman zuten pertsona guztien %96,84 gizonezko izan ziren, eta %3,16 emakumezko. Adinei erreparatuta, 20 eta 40 urte artean zuen lan-poltsan izena emandakoen %75,36k. Langileen nazionalitateari dagokionez, 2010eko mahats-bilketaren kanpainan bere horretan mantendu da marokoarren ehunekoa (%36,08); espainiarrena, berriz, hazi egin da (%31,01).

2010eko kanpainan, nekazaritza-ustiategiko titullarrak ez da agertu bulego horretara langile-eske. Sasoikako langileen beharra ez zegoenez, Nekazaritzako Sasoikako Langileen Aguraingo Informazio Bulegoarekin eta UAGA nekazaritza-sindikatuarekin jarri zen harremanean Eltziegoko bulegoa. Langile horiei lana eskaintzeko asmoz, telefonoa eta helbidea eman zuten Eltziegoko bulegoak.

Nekazariak, ordea, bulegora jotzen dute, gehienbat, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrearekin eta Enplegu Zerbitzu Nazionalarekin gauzatu beharreko derrigorrezko izapideak egiteko. 2009an, beren datuak "**Zuzeneko DIE**" sistemaren bidez Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorreara elektronikoki transmititzeko baimena eman zuten hainbat nekazari. Nekazari horietako askok, hala ere, arazoak izan zituzten web-aplikazio horrekin eta bulegora jo zuten horiek konpontzeko. Gehienetan, laguntza-telefono bat ematea beste aukerarik ez du izan bulegoak. Zenbaitetan, hizpide dugun aplikazioarekin izandako arazoak konpontzeko asmoz, GSDOko langileengana jo zuten Eltziegoko bulegoak. GSDOko langileek ez zuten arazoa konpontzerik izan, GSDOko kide jakin bati hots egin behar izan zioten argibide eske Eltziegoko bulegoko langileek. Nekazariak kexu dira horregatik eta, oro har, aplikazioak gaizki funtzionatzen duelako.

Eltziegoko behin-behineko bulegora erabiltzaile gutxik jotzen duenez, mahats-bilketaren kanpainan bulego hartara funtzionariarik, material informatikorik eta bulegoko materialik ez bidaltzea erabaki du Gobernuaren Arabako Ordezkariordeak.

Aguraingo bulegoa

Nekazari gehienek (%80ak) GSDOrekin eta EINekin egin beharreko izapideei buruz galdetzen dute. Horiek baino askoz gutxiago etortzen dira lanari buruzko aholku-eske (%20) eta ia bat ere ez dator langile-eske.

Labur esatera, ondoko arrazoi hauengatik etortzen dira nekazariak bulegora:

- Langileak kontratatzean bete beharreko baldintzei buruzko informazioa eskatzera.
- Sasoikako langileak GSDOn altan ematera, eta langile horien lan-baimenak baliozkoak diren egiaztatzen. Kontratatu nahi duten lantaldeak lagunduta etorri ohi dira zenbait nekazari, langile horien agiriak legez lan egiteko balio ote duten egiazta dezagun.

- Laneko kontratuak sinatzera eta horiek EINera bidaltzera.
- Kanpaina amaitzean, bajen eta lanaldi errealen berri Gizarte Segurantzari ematera etortzen dira. Zenbaitetan, altak eta kontratuak deuseztatzen dira.
- Egindako izapideen kopia hartzen ere etorri ohi dira, eta kontratatzean zer beste izapide egin behar dituzten eta horiek non egin daitezkeen galdetzen. Adibidez: nominak, enpresa-egiaztagiriak, kotizazio-buletinak, eta abar.

Nekazaritzako 12 ustiategik erabili dute goian aipatutako zerbitzu hori 2010ean.

Nekazariak 70 galdera egin dituzte guztira. Nekazari gehienak bulegora etorri dira galderak egitera. Telefonoz deitu dutenek bulegoan egon ondoren izandako zalantzak argitzeko hots egin dute. Agurain inguruko herrietakoak dira bulegora agertu diren gehienak. Ustiategiek **63 kontratu** formalizatu dituzte guztira.

Sasoikako langileak, bestetik, 49 galdera egin zituzten 2010ean.

40 lagunek eman zuten izena lan-poltsan; 2009koaren bikoitza ia (22). 24 lagun etorri ziren bulegora lan-poltsan izena ematera (eskatutako agiriak behar bezala zeuzkatelarik); gainerakoek telefonoz hots egin dute. 39 gizonetako eta emakumetako bat izan ziren lan-poltsan.

Gehienak Araban bizi baziren ere, gehienak magrebtarrak ziren (25), espainiarrak (7), latinoamerikarrak (4) eta errumaniarrak (4). Aguraingo bulegoak ez ziren lanik eman, inork ez baitzuen langilerik eskatu.

1.7. LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEKO ARAUAK BETETZEA

Arduraduna: Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Patata- eta mahats-bilketaren sasoikako kanpainetan, ondoko ekintza hauek gauzatu ditu OSALANek:

- Laneko arriskuak prebenitzeari buruzko laguntza, informazioa eta aholkuak ematea.
- Informazio-liburuxkak banatzea. Liburuxken izenburuak izan dira: "Laneko arriskuen prebentzioa patata-bilketan" eta "Mahats-bilketan lan-arriskuak nola prebenitu". Hainbat hizkuntzatan argitaratutako liburuxka horiek zenbait erakundetara bidali ziren (udaletara, osasun-etxeetara, Lanbidera, UAGARA, eta abarretara), baita nekazariari, kooperatibetara, ardandegietara, eta abarretara ere. Patataren kanpainan 37 informazio-jardura gauzatu ziren, eta mahats-bilketaren kanpainan 54.
- Kooperatibetara, ardandegietara, sasoikako langileak kontratatzen dituzten enpresetara, eta artean diren erakundeetara joan dira Osalaneko ordezkariak, Laneko Arriskuen Prebentzioko Legea egoki betetzen den egiaztatzen.
- Istripu-tasari buruzko agiriak banatu ziren osasun-etxeetan eta Lezako ospitalean. Horrez gain, egoitza horietako arduradunekin bilerak egin ziren, kanpainaren arrazoiak eta xedea azaltzeko.

OSALANekin elkarlanean, Lan Ikuskatzaitzak eta Gizarte Segurantzak kontrolatzen dute laneko arriskuen prebentzioa. Laneko segurtasunaren eta osasunaren alorrean 59 jardura gauzatu ziren 2010eko kanpainan. Jardura horien ondorioz, arau-hausteen 3 akta egin ziren (6.260 € guztira), eta 27 errekerimendu.

Istripu-tasa aztertzeko, bestetik, Arabako Errioxako Leza ospitaleko nahiz osasun-etxeek emandako datuak hartuko ditugu oinarri. Datu horien arabera, lanean istripua izandako 24 lagun artatu ziren Lezako ospitalean. Zauri arinak izan zituzten horiek guztiek, eta ez zuten bakarrik hartu. Patata biltzeko kanpainan, berriz, 4 istripu gertatu ziren. Zonako osasun-etxeek emandako informazioaren arabera, zauri arinak izan zituzten lagun horiek, eta ez zuten bakarrik hartu.

1.8 SASOIKAKO LANGILEENTZAKO DOAKO INFORMAZIO-TELEFONOA MANTENTZEA

Arduraduna: IMK

Doako informazio-telefonoa funtzionamenduan izan zen Eltziegoko bulegoan irailaren 16tik urriaren 30era arte. Asteleheneretik ostiralera 09:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 17:00etara hartzen ziren deiak. Ordu horietatik kanpo, erantzungailua zen martxan.

Datuak azterturik, ikusiko dugu behera egin duela nabarmen telefono bidez edo bulegoan bertaratu argibide-eske etorri diren lagunen kopuruak.

Mahats-bilketarako lan-poltsan, 158 lagunek eman zuten izena: 103k bulegora etorritz; eta **55k doako telefonoaren bidez.**

2009 ETA 2010 URTEETAN BULEGORA JO ZUTENEN ESTADISTIKA

	2009 (09/10/30era arte)			2010 (10/10/30era arte)		
	Bul.	Tel.	Guztira	Bul.	Tel.	Guztira
Sasoikako langileak	173	90	263	127	65	192
Nekazariak	125	14	139	117	26	143
Guztira	298	104	402	244	91	335

2. BIZITOKIAK

Lantaldeko kideak: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila; Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila; Gobernuaren Ordezkariordeztza Araban; UAGA; eta EUDEL.

2.1. SASOIKAKO LANGILEENTZAKO TALDEKO BIZITOKI PUBLIKOEN NAHIZ PRIBATUEN SAREA HANDITZEA ETA HOBETZEA

Langileentzako eta haien familientzako bizitoki komunitarioak sortu edo egokitu daitezela sustatzeko asmoz, lokalak eraikitze, egokitzeko, hobetzeko, eta ekipatzeko laguntzei buruzko informazioa bidali zuen EUDELek 2010ean Infoudalaren bidez.

UAGAk, bestetik, bizitokien sare bat kudeatzen du jatorrian kontratazioak egiteko programaren barruan. Harekin arazo bat izan zen 2010eko mahats-bilketan, ez baitzegoen nahikoa bizitokirik mahats-bilketan arituko ziren langile guztientzat, nekazariak eskatu bezala. Egoitza guztiak okupatu ondoren nahikoa bizitokirik egon ez eta eskualdeko langileak kontratatu behar izan ziren, nahiz eta langileok esperientziarik ez izan jatorrian kontratatzekeo programan.

2.2. SASOIKAKO LANGILEENTZAKO BIZITOKIAK SORTU EDOTA EGOKITZEKO LAGUNTZEN ETA DIRU-LAGUNTZEN PLANA MANTENTZEA

Arduraduna: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila 2010ean, 432.867 euroko aurrekontua izan zen sasoikako langileentzako bizitokiak eraikitze, egokitzeko, hobetzeko eta ekipatzeko diru-laguntzetarako. Bi diru-laguntza baino ez ziren eskatu: bata, Bizkaian 8 plazako bizitoki berri bat egiteko; eta, bestea, Araban den 25 plazako bizitoki bat hobetzeko. Bi eskaerak onartu ziren; 21.014,06 euro, guztira.

Sasoikako langileentzako bizitokiek bete beharreko baldintzen arautegia onartu zenetik, arautegi horren helburua bizitokiak eraikitzen sustatzeari uztea zela uste izan du UAGAk. Arautegia aldatzeari buruzko eztabaida sortu zen 2010ean, Sasoikako langileen errealitatera eta bizitokiek bete beharreko gutxieneko baldintzetara egokitutako arautegia sortu nahi baita. Bizitokiez arduratzen den lantaldea hainbatetan bildu da, arau-zirriborro egingarria osatzeko eta indarrean den azaroaren 28ko 248/2006 Dekretua aldatzeko asmoz. Hortaz, bizitokien baldintzak aldatu eta murrizteko asmoz, Estatuko eta beste autonomia erkidego batzuetako arauekin alderatu da hizpide dugun arautegia.

2011n barrena izapidetuko da juridikoki aldaketa.

3. ADINGABEEN ARRETA

Lantaldeko kideak: Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako Saileko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea; eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

2008ko eta 2009ko sasoikako kanpainen, behera egin du nabarmen lekuz aldatu behar izan duten pertsonen kopuruak. Kopuru hori %37,5 ingurukoa izan zen Aguraingo koadrilan, eta %53 ingurukoa Kanpezuko eta Arabako Mendialdea koadrilatan.

Adingabeen kopuruak ere behera egin du nabarmen Kanpezun eta Arabako Mendialdean (2007an 32 adingabe izan ziren; 2008an 11; eta 2009an 4 besterik ez). Are gehiago, Aguraingo koadrilan ez da adingaberik izan azken bi urteotan.

Horrez gain, gero eta patata-soro gutxiago daude bi zona horietan. Joera horren iturburu ondoko hiru faktore hauek izan daitezke: batetik, patatak haztea ez dela oso errentagarria; bestetik, nagusiek ustategia uzten dutela, dela erretiroa hartu behar dutelako, dela jardueraz aldatuko dutelako; eta, azkenik, gero eta makina gehiago erabiltzen direla patatak biltzeko. Gero eta zehatzagoak eta modernoagoak diren makinak erabiltzen badira, ez da hainbeste eskulan kontratatu behar eta, ondorioz, patata ekoiztearen kostuak murrizten dira.

Kontuan izanik kanpotik etorritako sasoikako langileen kopuruak behera egin duela, Arabako Errioxan aurkitzen den lantalde bat kontratatu zen 2010eko kanpainan. Horrela, patatak biltzen diren zonetan gizarte- eta hezkuntza-laguntza izango zen, horrelakorik behar izanez gero. Baina, ez da laguntza horren beharrik izan.

Hilabete batez eskaini zaie gizarte eta hezkuntzako laguntza sasoikako langileen familiei Arabako Errioxan; zehazki, irailaren 29tik urriaren 28ra.

Lekuz aldatu behar izan duten pertsona eta familiei laguntza eskaintzea izan da, hasiera-hasieratik, esku-hartze horren helburua. Haren bidez, hartzaileak gure Lurraldean ahalik eta ondoen egon daitezela lortu nahi izan da. Horretarako, sasoikako langileak gizarteratzen saiatu behar gara, eta gizarteko nahiz komunitateko eragileekin harremanean egon daitezela.

3.1. ADINGABEEN ESKOLATZEA

3.1.1. SASOIKAKO LANGILEEN FAMILIETAN DATOZEN ADINGABEAK ESKOLATZEKO SENTSIBILIZAZIOA ETA LAGUNTZA

Arduraduna: Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako Saileko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea.

1. Gizartearen eta hezkuntzaren alorreko programari buruzko informazioa eman diegu Guardia eta Arabako Errioxa koadrilako udalei, udalerrri bakoitzean gauzatuko diren esku-hartzeen berri izan dezaten. Programaren ezaugarriak garrantzitsuenak biltzen dituen orria bidali zaie udalei aurten: helburuak, hartzaileak, jarduerak, harremanetarako telefonoak, eta abar zehaztu dira.

2. Ikastetxeekin hainbat bilera egin dira esku-hartzea egin eta programa garatu aurretik, bitartean nahiz ondoren.

3. Horrez gain, koadrila horretan gauzatuko diren jarduera nahiz ekintzetatik sasoikako lanarekin lotura duten horien berri eman zen Gizarte Ongizatearen Foru Erakundeak Radio Riojan duen *Escuela de Padres y Madres* izeneko irratia.

4. Aurkezpen-bilera egin genuen Guardiako osasun-etxeko erizain batekin, izapideak oztupo izan ez zitezen espezialista zehatz baten premia beharra baldin bazegoen.

3.2. HEZKUNTZAKO ESKAINTZA EGOKITZEKO BALIABIDEAK KOORDINATZEA

Arduraduna: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Ikasleak eta ikastetxeak

Arabako Errioxako lau ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxe batean aritu ziren 2010eko mahats-bilketan aritutako sasoikako langileen seme-alabak:

Lantziegoko Lantziego Ikastola LHI

Víctor Tapia LHI (Guardia)

Elciego LHI

Labastida LHI

Lapuebla de Labarcako Assa Ikastola HLBHIP

Ikastetxe publikoetatik, Lantziego Ikastola LHIn eskolatu ziren ikasle gehien 2010ean. 2009ko mahats-bilketan, 14 ikasle eskolatu ziren ikastetxe horretan; 2010ean, aldiz, 16 (Haur Hezkuntzan 7, eta Lehen Hezkuntzan 9 –urriaren 15eko datuak–). Egia esan, 13 haur izan ziren hainbat egunez (Haur Hezkuntzan 4, eta Lehen Hezkuntzan 9).

Portugaldik, Zaragozatik, Nafarroatik eta Errioxatik zetozen haur horietako gehienak, eta 2 eta 12 urte bitarte zeuzkaten. 4 eta 5 urte bitarteko 4 ume eskolatu ziren Haur Hezkuntzan, eta 6 eta 12 urte bitarteko beste 9 Lehen Hezkuntzan. Horixe izan zen ikasle-talderik egonkorrena.

Guardiako Víctor Tapia LHIn 13 haur eskolatu ziren 2010ean; 2009an bezainbat. Haur horiek, edonola ere, ez ziren egunero joan eskolara.

Portugaldik eta Asturiastik etorriak ziren gehienak, eta 6 eta 12 urte bitarte zeuzkaten. Jantokian bazkaldu zuten, eta jolas-orduan gosaria hartu zuten. Hezilan elkarteko laguntza eskertu dute ikastetxeek.

Aurreko urtean baino askoz haur gutxiago eskolatu ziren Elciego LHIn: 2009an 24 izan ziren; 2010ean, berriz, 10.

Haur gehienak portugesak izan arren, baziren Valladolidetik etorritako hainbat ere. Eskuernagan, Samaniegon, Mañerun eta Navaridasen egon zirenez, eskola-garraioa erabili zuten guztiek eskolara etortzeko. 4 eta 11 urte bitartean ziren, eta eskolako jantokian bazkaltzen zuten guztiek.

Familia bereko 2, 4 eta 9 urteko hiru haur Oiongo Ramiro de Maeztu LHIn eskolatzea eskatu zen. Haur horiek, azkenean, ez ziren ikastetxera joan. Hala ere, haur bakoitzak bazuen tokia bere adineko ikasgelan. 2009ko mahats-bilketan, 8 haur joan ziren ikastetxe horretara. Ikastetxera haur gehien agertu ziren egunean 7 haur etorri ziren.

Labastida LHIn, 2 haur matrikulatu ziren Haur Hezkuntzan 2010ean; 2009an, aldiz, 4 ume izan ziren. Briñas-en bizi eta Bastidan egiten zuten lan haien gurasoek. Hortaz, gurasoek ekarri zituzten ikastetxera urriaren 5 eta 22 bitarte. 4-5 urteko gelan izan ziren, eta jantokian bazkaltzen zuten.

Lapuebla de Labarcako Assa Ikastola HLBHIP ikastetxean 3 eta 12 urte bitarteko 20 ikasle eskolatu ziren: Haur Hezkuntzan 5, eta Lehen Hezkuntzan 15. Irailaren 30etik urriaren 22ra izan baziren ere, urriaren 5etik 8ra agertu zen haur gehien eskolara (13-14 haur). Jantokian bazkaldu zuten.

Laburbilduz, 160 haur sartu ziren 2010eko kanpainako erroldan. Horietatik 44 eskolara derrigor joateko adinean ziren arren 61 eskolatu ziren.

1. TAULA: ESKOLATUTAKO ADINGABEAK, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

ADINA ETA SEXUA	0-3 urte	3-6 urte	6-12 urte	12-16 urte DBH	GUZTIRA
NESKAK	20	12	30	14	76
MUTIKOAK	18	19	35	12	84
ESKOLATUTAKO HAURRAK GUZTIRA	3	14	43	1	61

- Guztira 61 adingabe eskolatu ziren 2010eko kanpainan.
- Aztergai dugun kanpainan, 91 haur ziren eskolara derrigor joateko adinean; eta horietatik 44 adingabe (%48,35) besterik ez dira eskolatu. Aurreko urteko kanpainan, ordea, eskolara derrigor joateko adinean zeuden haurren %68 eskolatu zen.

- 0 eta 3 urte arteko 3 adingabe eskolatu dira: bi urteko bi, eta hiru urteko bat.
- 3 eta 6 urte bitarteko 14 haur eskolatu ziren 2010ean.
- Aurreko urteetan gertatu bezalaxe, eskolatutako haur gehienek 6 eta 12 urte bitarte zeuzkaten, adin-tarte horretako 43 haur eskolatu baitira guztira.
- Bigarren Hezkuntzako eskolatzeari dagokionez (12-16 urte), neskato bakarra eskolatu zen 2010ean, familiak berak eskolatua, gainera. Guardiako Samaniego BHIIn izan zen, DBHko 3. mailan. Ekoran zuen bizitokia.

2. TAULA: ESKOLATZEA, HEZKUNTZA-MAILAREN ETA SEXUAREN ARABERA

ADINA	0-3 urte (Haur Hezkuntza)		3-6 urte (Haur Hezkuntza)		6-12 urte (Lehen Hezkuntza)		12-16 (DBH)		GUZTIRA	
	Neska k	Mutilla k	Neska k	Mutilla k	Neska k	Mutilla k	Neska k	Mutilla k	Neska k	Mutilla k
HAURRA K GUZTIRA	20	18	12	19	30	35	14	12	76	84
ESKOLAR A JOANDAK O EGUNAK	1	2	6	8	17	26	1	0	25	36
BERTAR ATZEA (%)	4,55	11,11	50	42,11	56,66	74,28	7,14	0	32,89	42,85

- Sasoikako langileen haur gehienak 6-12 urte artekoak izan dira eta adin-tarte horretako haur gehien eskolatu dira.

3. TAULA: ESKOLATZEA, HEZKUNTZA-MAILAREN ARABERA

HEZKUNTZA-MAILA	ADINGABEAK GUZTIRA	ESKOLATUTAKO ADINGABEAK	ESKOLATUTAKO HAURREN %
H. HEZKUNTZA 0-3 urte	38	3	% 7,89
HAUR HEZKUNTZA 3-6 urte	31	14	% 45,16
LEHEN HEZKUNTZA 6-12 urte	65	43	% 66,15
DBH 12-16 urte	26	1	% 3,85
MAILA GUZTIETAN	160	61	% 38,13

- Haur Hezkuntzan (0-6 urte) erroldatu dira ume gehien: 69. Adin-tarte horretan, %24,63ko eskolatzeta-tasa izan zen 2010ean; 2009an (%17,82) baino zertxobait handiagoa.
- Bestetik, 6-12 urte bitarteko 65 adingabe zeuden erroldan. Horietatik 43 eskolatu ziren; eskolatzeta-tasa, hortaz, handia izan zen (%66,15koa).
- 2009an baino 12-16 urte bitarteko haur gehiago izan ziren 2010ko erroldan (14 eta 26 haur, hurrenez hurren). Hogeita sei horietatik, hala ere, neskato bakarra joan zen eskolara. Adin-tarte horretako eskolatzeta-tasa, bidenabar, askoz txikiagoa izan zen 2010ean (%3,85) 2009an baino (%42,72).
- Gero eta familia gehiagok egiten du zonara iritsi eta, automatikoki, seme-alabak ikastetxean eskolatu. Orotara, familiek zuzenean matrikulatu dituzte 2010ean eskolaturako 21 adingabeen %34,43. Beste era batera esanda, zonako erroldan ageri diren sasoikako langileen haurren %13,13 familiek eskolatu dituzte zuzenean.

4. TAULA: ADINGABEEN ESKOLATZETA-TASA, HAINBAT URTETAKO

URTEA	ADINGABEAK GUZTIRA	DERRIGORREZKO HEZKUNTZA EGIN BEHAR DUTEN HAURRETATIK ESKOLARA JOAN EZ DIRENAK	ESKOLATUTAKO ADINGABEAK
1997	107	-	107
1998	162	-	68
1999	117	-	50
2000	407	-	173
2001	298	65	118
2002	296	73	100
2003	316	116	78
2004	434	167	84
2005	366	109	113
2006	203	110	120
2007	213	36	69
2008	198	33	78
2009	201	32	86
2010	160	47	61

- 2009ko datuen aldean, behera egin du nabarmen sasoikako langileen familietako haurren kopuruak.
- Askok hazi da derrigorrezko hezkuntza egin behar dutenetatik eskolara joan ez diren haurren kopurua: 32 haur izan ziren 2009an, eta 47 2010ean.

Jarraian, zehaztasun handiagoz aztertuko ditugu eskolatu ez diren haurren datuak:

5. TAULA. ESKOLARA JOAN EZ DIREN HAURREI BURUZKO HAINBAT OHAR

HEZKUNTZA-MAILA	ERROLDAKO ADINGABEAK	ESKOLARA JOAN EZ DIREN ADINGABEAK	Derrigorrezko Hezkuntza egin behar dutenetatik ESKOLATU EZ DIREN HAURREN %
0-3 urte	38	35	-----
3-6 urte	31	17	-----
6-12 urte	65	22	33,85
12-16 urte	26	25	96,15
GUZTIRA	160	99	51,65

- Indarreko legeen arabera, eskolara derrigor joan behar dute 6 eta 16 urte bitarteko gazteek. Hala ere, sasoikako langileen familietako adingabeen %51,65 ez da eskolatu zonako ikastetxeetan.
- Guztira, hiru urtetik beherako 38 haur sartu dira erroldan. Horietatik hiru besterik ez dira eskolan matrikulatu.
- 3 eta 6 urte bitarteko 31 haur izan dira erroldan, eta horietatik 14 ez dira eskolatu.
- Gizartearen eta hezkuntzaren alorreko esku-hartze programaren helburu nagusia haurrak eskolara joan daitezela da. Horregatik, azpimarratu beharra dago oso handia izan dela eskolatu ez diren 12 eta 16 urte bitarteko adingabeen tasa (%96,15).

6. TAULA: ESKOLATU EZ DIREN HAURRAK

6 eta 16 urte bitartean izateagatik eskolara derrigor joan behar luketen eta joan ez diren haurren kopurua	47
Lehen Hezkuntza	22
Bigarren Hezkuntza	25

- 6-16 urte arteko haurrak eskolatzea derrigorrezkoa den arren, 47 haur ez dira eskolara joan: 22 Lehen Hezkuntzan, eta 25 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Guztira, 91 haur ziren eskolatu beharrekoak.

Adingabeak eskolan ez matrikulatzeko familiek emandako arrazoiak:

- Txikienei dagokienez (0-3 urte), haurrak oso txikiak direla eta eskualdean denbora gutxi egongo direla argudiatu ohi dute gurasoek.
- Handitxoak ez eskolatzeko, berriz, ondoko arrazoi hauek eman zituzten familiek: zonan denbora gutxiz egongo zirela, eta adingabeak nork zainduko zituen bazutela.
- Beste arrazoi batzuk izan dira: familia bereko haur guztiak ezin zirela ikastetxe berera joan; ez dituztela haurrak eskolatu nahi; jatorrizko udalerrian matrikulaturik daudela; eta bakarren batek esan du haurrak giltzurrunetako gaitza zuela.

7. TAULA: ESKOLATU GABEKO HAURRAK, HERRIEN ARABERA

UDALERRIAK	ESKOLARA NAHITAEZ JOAN BEHAR DUTEN HAURRETATIK ESKOLARA JOAN EZ DIRENAK
MAÑUETA	6
CAMPILLAR	1
ELTZIEGO	7
BILAR	9
KRIPAN	1
LAPUEBLA DE LABARCA	7
LANTZIEGO	2
NAVARIDAS	1
ESKUERNAGA	8
EKORA	5
GUZTIRA	47

Adingabe portugesen eskolatzea:

- Guztira Portugalgo 62 haur izan ziren gure artean. Guztira, 21 haur portugesez eskolatu ziren; eskolatutako haur guztien %34,43 da hori. 12 eta 15 urte bitartean zituzten eskolatu ez ziren 19 adingabeetatik 9k.

8. TAULA. PORTUGALGO ADINGABEEN ESKOLATZEA

GURERA ETORRITAKO ADINGABE PORTUGESEN KOPURUA	ESKOLATUTAKOAK	ESKOLARA NAHITAEZ JOAN BEHAR DUTEN HAURRETATIK ESKOLATU EZ DIRENAK
62	21	19

9. TAULA. PORTUGALGO ADINGABEEN ESKOLATZEA, UDALERRIEN ARABERA

UDALERRIA	ESKOLATUTAKO ADINGABE PORTUGESAK
MAÑUETA	4
KRIPAN	7
BILAR	6
LAPUEBLA DE LABARCA	1
LANTZIEGO	2
SAMANIEGO	0
ESKUERNAGA	1
GUZTIRA	21

Jatorrizko udalerrian eskolatutakoak:

- Sasoikako langileek adierazitakoaren arabera, 149 haur etortzekoak ziren 2010ean.
- 30 adingabe ez zeuden jatorrizko udalerrian eskolatuak, (0 eta 2 urte bitarteko haurrak ziren).
- Familiek haiei buruzko informazioak eman ez zuten, ez dakigu adingabe horietako 11 jatorrizko udalerrian eskolaturik dauden ala ez. Adinen arabera, talde hauetan bana genitzake hamaika adingabe horiek:
 - 0 eta 3 urte artean: adingabe 1.
 - 3 eta 6 urte artean: 7 adingabe.
 - 12 eta 16 urte artean: 3 adingabe.

10. TAULA. JATORRIZKO UDALERRIAN ESKOLATUTAKOAK: ADINA ETA SEXUA

	0-3 urte (Haur Hezkuntza)	3-6 urte (Haur Hezkuntza)	6-12 urte (Lehen Hezkuntza)	12-16 (DBH)	GUZTIRA
NESKAK	3	8	30	14	55
MUTILAK	4	16	35	9	64
GUZTIRA	7	24	65	23	119

12 eta 16 urte bitarteko 23 gaztek adierazi dute jatorrizko udalerrian eskolatuak daudela.
6 eta 12 urte bitarteko haur guztiak jatorrizko udalerrian eskolatuak daude (65 haur guztira).

Irakasle gehiagoren beharra

Denbora mugatu batez egongo diren ikasle horiek ahalik eta baldintzarik onenetan eskola daitezten, irakasle gehiago kontratatu dira:

Elciego LHI: irakasle 1.
Lantziego Ikastola LHI: 2 irakasle.
Victor Tapia LHI: 2 irakasle.

Guztira: 5 irakasle.

Aipatutakoez gain, irakasle bat eta laguntzaile bat kontratatu zituen Assa Ikastola HLBJIP itunpeko ikastetxeak. 2009an egin bezalaxe, sasoikako langileekin etorritako haurrak izan ziren ikastetxe horretan 2010ean ere (2009an 17, eta 2010ean 20).

Oion eta Bastidako ikastetxe publikoetan ez zuten irakasle gehiagorik hartu, ez baitzuten horren beharrik izan. Aldi baterako etorritako ikasle gutxi eskolatu ziren ikastetxe horretan eta, ondorioz, alde aurretik zeuzkaten baliabideekin moldatu ziren.

Balioespena

Eskolako antolakuntza eta esparruak

Mahats-bilketa hasi aurretik, sasoikako langileekin etorritako adingabeak eskolatzeari buruz hainbat argibide eman zitzaizkien Arabako Errioxako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeei. Horrela, eskolatzeko irizpideak bateratu genituen, eta irakasle gehiago kontratatzeko irizpideak gogora ekarri. Irakasleak kontratatzeko irizpideei dagokienez, aurreko urteetan adostutakoei heldu genien.

Bestetik, hezkuntza antolatzeko modua ikastetxe batetik bestera aldatu da. Lantziegoko LHIn, esaterako, beste ikasleekin batera izan dira Haur Hezkuntzako ikasleak. Lehen Hezkuntzan, ordea, hainbat adinetako 9 haurrez osatutako taldea sortu zen. Talde horretako kideak, nolana ere, ikastetxeko beren adineko taldeetan aritu ziren hainbat arratsalde, jolasean edo ariketa fisikoa egiten.

Elciego LHIn ere ikastetxeko ikasle-talde iraunkorretan sartu ziren Haur Hezkuntzako umeak. Lehen Hezkuntzako ikasleak, berriz, liburutegian izan zuten gela. Aurreko urteetako materialak izan ziren behin-behineko gela hartan, eta irakasle batek zaindu zituen. Ingeles, musika eta gorputz-hezkuntza irakasgaietarako, ordea, Lehen Hezkuntzako 1., 3. eta 4. mailako ikasleekin aritu ziren.

Guardiako Víctor Tapia LHIn, 6 eta 12 urte bitarteko haurrak izan ziren. Haur horiekin talde berezi bat sortu zuten, eta Lehen Hezkuntzako beste ikasleekin batera aritu ziren gorputz-hezkuntza irakasgai lantzen. Hezilan elkartearen laguntza nabarmendu dute ikastetxe horretakoek.

Lapuebla de Labarkako Assa Ikastola HLBJIP ikastetxean, talde berezi bat sortu zuten aldi baterako etorritako ikasle horiekin.

Jarduerak

Ikastetxeetatik jaso dugun informazioaren arabera, helburu berberak edo oso antzerakoak izan dituztela ondoriozta dezakegu. Nagusiki, ondoko alderdi hauek lantzea izan dute helburu: bizikidetz;

elkarrekiko begirunea; eta materialak zaintzea. Nabarmenezkoa da, baita ere, higie-arauak eta elikatze-ohiturak landu dituztela Eltziego eta Guardiako ikastetxeetan.

Eskola-helburuei dagokienez, adin eta eskola-maila desberdinetako haurrak bildu ziren talde berean. Horiek gogoan, talde bakoitzaren beharretara egokitu ziren edukiak.

Matematikak, irakurmena eta idazkuntza landu zituzten talde guztiek. Ikasgai horiez gain, natur ingurune hainbat alderdi jorratu ziren Eltziegoko eta Guardiako ikastetxeetan, hala nola: elikadura, osasuna, herrialdeak eta kontinenteak non aurkitzen diren, eta abar. Lantziegoko ikastetxean, berriz, Interneten bidez informazioa bilatzen ikasi zuten gazteek. Guardian ere ordenagailua erabili zuten hainbat ikaslek. Ikasleen gogoia pizteko asmoz, jolasak egin ziren eta hainbat bideo ikusi.

Balioespena eta ikastetxeen hainbat proposamen

Pozik agertu dira mintzagai dugun proiektuan parte hartu duten irakasleak ikasleekin, egindako lanarekin, eta bizipenarekin.

Eltziegoko ikastetxeko premialdiko irakaslearen ustez, haurrak pozik egon ziren, eta ikasgelan giro ona izan zen; pertsonalki, ontzat eta baliozkotzat jo zuen bizipena. Irakasle horrek bi arazo nabarmendu zituen. Batetik, mintzagai ditugun ikasleak etenik gabe aldatzen dutela lekuz eta, ondorioz, ez dutela ingurura egokitzeko ohiturarik. Bestetik, irakasleek ez dutela nahikoa denbora haurrak ezagutzeko eta hurrek, beren aldetik, ez dutela astirik lan-erritmo egokia hartzeko. Arazo horiek gainditzeko asmoz, ikastetxeetan kultura-artekotasuna are gehiago lan dadila proposatu du premialdiko irakasle horrek. Haren ustez, ikastetxean kultura-artekotasunaren gaia landuz gero aldi baterako datozen ikasleak ez dira bazterturik sentituko.

Lantziegon, berriz, hainbat arazo izan ziren. Hainbat adinetako ikasleak izan ziren, eta ikasleek ez zuten maila bera idazketan nahiz matematiketan. Musikan, antzerkigintzan, informatikan, plastikan eta jolasetan, ordea, egoki moldatu ziren. Sasoikako ikasleekin gehien aritu ziren premiazko bi irakasleak pozik dira programarekin. Haur Hezkuntzan aritutako premialdiko irakasleak nabarmendu du, esaterako, 2010ean estreinakoz txertatu direla haurrak Haur Hezkuntzan, eta berealdiko garrantzia duela horrek. Lehen Hezkuntzan aritutako irakasleak, berriz, une onak eta txarrak bizi izan dituela adierazi du, baina, oro har, bizipena positiboa izan dela deritzo.

Guardian ere pozik dira eskola-kanpainarekin. Bi ikasleek ez dute jokabide egokia izan eta, ondorioz, finkatutako helburu guztiak ez dituzte bete. Hala eta guztiz ere, ontzat jo dute bizipena. Ikastetxe horretakoek proposatzen dute, alabaina, ikastetxeko bizikidetzaren eta funtzionamendu-arauak betetzearen garrantzia azpimarratzea.

3.3. GIZARTEAREN ETA HEZKUNTZAREN ALORREKO PROGRAMAK PLANEATZEA ETA GAUZATZEA

Arduraduna: Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako Saileko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea.

3.3.1. BEREKIN ADINGABEAK DITUZTEN SASOIKAKO LANGILEEN FAMILIEN ERROLDAK EGUNERATZEA

Guztira 19 udalerritan izan dira sasoikako langileen familiak eta taldeak:

Asan, Mañuetan, Gorrebuston, Kripanen, Campillarren, Eltziegoren, Billarren, Bastidan, Labrazan, Guardian, Lantziegon, Lapuebla de Labarcan, Sernan, Navaridasen, Oionen, Páganosen, Samaniegon, Eskuernagan, eta Ekoran.

Guztira 1.100 lagun joan dira udalerriri horietara. Horien %85,45 (1.273 pertsona) heldu dira; eta %14,55 (160 pertsona) haur. Sasoikako langileekin etorritako haurren kopurua nabarmen murriztu da aurreko urtearen aldean (%20,4).

2010ean, bestetik, berdindu egin dira gurera etorritako familien eta lantaldeen kopuruak (55 eta 54, hurrenez hurren). Berdintsua izan da, baita ere, multzo batean eta bestean dauden pertsonen kopurua: 553 pertsonak etorri dira familian (%50,27), eta 547 pertsona lantaldean (%49,73).

Aurreko urteetan gertatu bezalaxe, Mañuetan izan dira sasoikako langile eta familia gehien (159). Haren atzetik datoz Lapuebla de Labarca (128), Eltziego (113), eta Eskuernaga (113). Labrazan izan dira pertsona gutxien (2). Haren ondotik, Oion (4) eta Campillar (8) udalerriak izan dira pertsona gutxien hartu dituztenak.

Moredan, Lezan eta Biasterin ez da sasoikako langilerik bizi 2010eko kanpainan.

Sasoikako langileen familia gehienak Lapuebla de Labarcan, Mañuetan eta Bilar udalerrietan izan dira. Langileen talde gehienek, aldiz, Mañuetan eta Navaridasen hartu dute ostatu.

1. TAULA. SASOIKAKO FAMILIEN ETA TALDEEN BANAKETA

	KOP.	PERTSONA K GUZTIRA	HELDUAK	ADINGABEA K	PERTSONA K %
FAMILIAK	55	553	393	160	%50,45
LANTALDEAK	54	547	547	0	%49,55
FAMILIAK ETA LANTALDEAK GUZTIRA	109	1.100	940	160	%100

2. TAULA: ERROLDAREN HAINBAT URTETAKO DATU OROKORRAK

URTEA	HELDUAK	FAMILIAK /LANTALDEAK	HAURRAK	EGONALD IAREN BATEZ BESTEKO IRAUPEN A	ESKOLA TUTAKO haurrak	HERRIAK	PERTS ONAK GUZTI RA
1997	252	61 familia	171	17 egun	107	1	423
1998	380	55 familia	162	20 egun	74	1	542
1999	203	49 familia	117	11 egun	50	1	320
2000	790	155 familia	407	19 egun	176	13	1197
2001	795	78 familia 5 lantalde	298	15 egun	118	15	1093
2002	1022	73 familia 17 lantalde	286	13 egun	113	20	1308
2003	1518	93 familia 38 lantalde	316	13 egun	78	17	1824
2004	1702	115 familia 42 lantalde	434	18 egun	84	17	2136
2005	1759	104 familia 61 lantalde	366	20 egun	113	20	2125
2006	1273	87 familia 49 lantalde	203	20 egun	121	19	1476
2007	1473	60 familia 77 lantalde	213	15 egun	69	18	1686
2008	1439	60 familia 72 lantalde	198	20 egun	78	19	1637
2009	1455	66 familia 47 lantalde	201	13 egun	86	19	1656
2010	940	55 familia 54 lantalde	160	20 egun	61	22	1100

2009an baino sasoikako langile eta adingabe gutxiago etorri ziren eskualdera 2010ean. Guztira, 2009an baino 556 pertsona gutxiago jaso dira 2010eko erroldan (515 heldu eta 41 haur gutxiago).

3. TAULA: ERROLDAREN DATU OROKORRAK, UDALERRIAREN ARABERA

UDALERRIA	HELDUAK	ADING ABEAK	FAMILIA K	PERTSONAK	LANTALD EAK	PERTSONAK	PERTSONA K GUZTIRA
1. ASA	24	0	0	0	1	24	24
2. MAÑUETA	144	15	6	72	6	87	159
3. GORREBUSTO	18	0	0	0	3	18	18
4. KRIPAN	27	10	3	23	1	14	37
5. CAMPILLAR	8	1	1	9	0	0	9
6. ELTZIEGO	97	16	3	54	5	59	113
7. BILAR	70	29	9	63	5	36	99
8. BASTIDA	19	0	0	0	3	19	19
9. LABRAZA	2	0	0	0	1	2	2
10. GUARDIA	34	3	1	21	1	16	37
11. LANTZIEGO	65	9	5	40	5	34	74
12. LAPUEBLA DE LABARCA	92	36	9	101	3	27	128
13. SERNA	42	0	0	0	3	42	42
14. NAVARIDAS	72	8	4	43	6	37	80
15. OION	4	0	0	0	1	4	4
16. PÁGANOS	10	0	0	0	1	10	10
17. SAMANIEGO	59	3	5	22	1	40	62
18. ESKUERNAGA	94	19	5	73	2	40	113
19. EKORA	59	9	4	30	5	38	68
Briñasko adingabeak		2				2	2
GUZTIRA	940	160	55	551	54	549	1.100

4. TAULA: SASOIKAKO LANGILEEN SORLEKUAK

SORLEKUA	PERTSONA K	FAMILIA K	LANTAL DEAK	HELDUAK	HAURRA K	%
ANDALUZIA	42	0	3	42	0	3,82
ARAGOI	19	2	1	13	6	1,73
ASTURIAS	55	2	1	41	14	5
GAZTELA ETA LEON	132	8	3	109	23	12
GAZTELA-MANTXA	21	4	0	14	7	1,91
KATALUNIA	6	0	1	6	0	0,55
VALENTZIAKO ERKIDEGO	71	4	2	58	13	6,45
EXTREMADURA	9	1	0	8	1	0,82
GALIZIA	28	5	1	14	14	2,55
MADRIL	105	1	5	103	2	9,55
MAROKO	54	0	8	54	0	4,91
MURTZIA	2	0	1	2	0	0,18
NAFARROA	46	3	1	34	12	4,18
EAE	9	1	1	8	1	0,82
PORTUGAL	419	21	19	357	62	38,09
ERRIOXA	12	1	1	10	2	1,09
Estatuko beste autonomia-erkidego batzuk	24	0	3	24	0	2,18
EKIALDEKO EUROPA	36	1	3	34	2	3,27
Ez dakigu	10	1	0	9	1	0,9
GUZTIRA	1.100	55	54	940	160	100

- Aztergai dugun zonara etorritako pertsona guztien %38,09 portugesak dira. Portugalgo 419 lagun etorri dira guztira (357 heldu eta 62 adingabe); eta herrialde hartatik etorritako lantaldeen (19) eta familien (21) kopurua oso antzekoa da.
- Espainiarrei dagokienez, ia autonomia-erkidego guztietatik datoz sasoikako langileak. Gaztela eta Leondik datoz gehienak; 132 lagun (109 heldu eta 23 adingabe). Erkidego horretatik etorritako gehienak, gainera, familiarekin etorri dira. 2009an baino 18 pertsona gehiago etorri ziren Gaztela eta Leondik 2010ean. Horren eraginez, %6,88tik %12ra igo da lekuz aldatutako herritar guztien ehuneko.
- Sasoi batez lanera etorritakoen %9,55 Madrildarrak dira. 105 pertsona etorri dira guztira Autonomia Erkidego horretatik (103 heldu eta 2 adingabe). Gehien-gehienak, gainera, lantaldeetan etorri dira.
- Badira, halaber, taldeetan lanerako bildu diren eta Espainiako hainbat erkidegotatik datozen zenbait langile (24 pertsona heldu izan dira guztira; aztergai dugun eremura etorritako sasoikako langileen %2,18).
- Atzeritarrak: Ekialdeko Europatik (Errumania eta Polonia) 36 pertsona etorri dira (%3,27). Marokotik, bestalde, 54 pertsona etorri dira. Azken horiek lantaldeetan heldu zaizkigu, eta sasoi batez lanera etorritako pertsona guztien %4,90 dira.

Haurrak:

Arabako Errioxako koadrilako erroldan 55 familiatako 160 adingabe sartu dira guztira. Zonako 13 udalerritan bizi izan dira horiek guztiak. Kopuru horren barruan sartzen dira, baita ere, Bastidako LHIn eskolatu eta Errioxako Briñas udalerrian bizitokia zuten bi adingabe.

5. TAULA: HAURREN ERROLDA OROKORRA, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA

ADINA (Urteak)	0 - 3	3 - 6	6 - 12	12 - 16	GUZTIRA
NESKAK	20	12	30	14	76
MUTILAK	18	19	35	12	84
GUZTIRA	38	31	65	26	160

- Aurreko urteetan gertatu bezalaxe, ezinezkoa izan da 16 eta 18 urte-bitarteko gazteak erregistratzea. Adin horretako gazte asko lanean daudenez eta familia sortua dutenez, adinez nagusizat hartzen baitituzte jatorrizko beren familiek.
- 2010ean, sasoiakako langileekin etorritako adingabe gehienak Lapuebla de Labarkan eta Billarren bizi ziren (36 eta 29, hurrenez hurren). Udalerrri horien ondotik, Eskuernagan, Eltziegon eta Mañuetan izan ziren adingabe gehien (15 eta 19 bitarte, hiruetan ere).
- Asan, Gorrebuston, Labrazan, Bastidan, Sernan, Oionen eta Páganosen, berriz, ez da adingabekorik izan. Herri horiek Arabako Errioxaren ekialdean aurkitzen dira. Beste eremuetan baino makina gehiago erabiltzen dira eremu horretan mahatsak biltzeko eta, ondorioz, familia baino lantalde gehiago daude herri horietan.

6-. TAULA: BIZITOKI-MOTAK. PERTSONA-KOPURUAREN ARABERA

MOTA	KOP.	HELDUAK	ADINGAB EAK	GUZTI RA	PERSONAK (%)
Etxabea, borda, biltegia, pabiloia, sotoa	57	572	119	691	62,82
Eremu publikoan: denda, olana, eguzki-oihala	0	0	0	0	0
Eremu pribatuak: denda, olana, eguzki-oihala	1	4	3	7	0,63
Eremu publikoan: karabana, furgoneta	0	0	0	0	0
Eremu pribatuak: karabana, furgoneta	5	56	15	71	6,46
Egokitutako etxebizitza	12	128	11	139	12,64
Etxe zaharra	15	129	8	137	12,45
Bestelakoak:	8	51	4	55	5
GUZTIRA	98	940	160	1.100	100

- Guztira, 22 udalerritako bizitokiak aztertu dira. 98 bizitoki aurkitu dira 22 udalerrri horietako 19tan.
- Lonja, pabilioi, soto edo biltegi moduko ostatuak nagusi dira. Era horretako 57 egitura aurkitu ditugu, hau da, bisitatutako ostatu guztien %57.
- Dendekin, eguzki-oihalekin eta olanekin egindako bizitoki bakarra aurkitu dugu eremu pribatuan. Kripanen izan da eta 4 heldu eta 3 adingabe bizi ziren bertan.
- Ez da dendaz, eguzki-oihalez edo olanaz egindako bizitokirik ezta karabanarik edo furgonetarik aurkitu eremu publikoan.
- Guztira, karabanez edota furgonetez osatutako 5 bizitoki aurkitu ziren eremu pribatuen barruan. Bizitoki horietako batzuek lonja zuten, komunarekin edota barruan lo egiteko prestatuak. Guztira, 56 heldu eta 15 haur bizi ziren bost bizitoki horietan.
- Guztira, 27 etxe zahar eta etxebizitza egokitu aurkitu genituen. Bizitoki horietako gehienak (15) etxe zaharrak ziren.
- "Beste batzuk" izeneko multzoaren barruan, berriz, ondoko 8 bizitoki hauek sartu ditugu:
 - Autoa bizitoki zuen bikote bat. Iragaitzaz ziren Labrazan.
 - Ekoran, 10 heldu bizi ziren egokitutako garaje batean. Horrez gain, barruan makinak zituen beste garaje batean 4 laguneko familia bizi zen (3 heldu eta neskatxa bat).

- Bilar udalerrian bi bizitoki zeuden: ondo egokitutako garajea zen bat eta, eraikin aurrefabrikatua bestea. Garajea 7 heldu bizi ziren; eraikin aurrefabrikatua, berriz, 3 heldu; baina ezin izan ginen bertara sartu.
 - Beste bizitoki bat izan zen Lantziegon, baina ez dugu hari buruzko daturik.
 - Lapuebla de Labarcan bi garaje zeuden. Bietako batek ez zuen ez kaleko argirik ezta aireztatze-sistematik ere.
- Oro har, ikusi ditugun bizitokiek sasoikako langileen bizitokiak egokitzeko ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen dituztela esan dezakegu.

Jarraian are zehaztasun handiagoz aztertuko ditugu bizigarritasun-baldintzak hobetu beharko lituzketen bizitokiak:

Kripanen:

Egurrekin eta olanekin egindako etxola bat dago zelaigune batean. Langileak bertan bizi dira, eta bertan jaten dute. Etxola horrez gain, bada bi lagunentzako kanpin-denda bat eta biltegi txiki bat ere. Palet-ez eta taulez egindako biltegi txiki horretan sorgailua gordetzen dute. Kanpaleku horretan, 7 laguneko familia bizi da: hiru heldu eta lau adingabeko (16, 10, eta 4 urteko hiru haur eta 7 hilabeteko umetxoa). Bizitokian ez da urik, ez argirik, ezta komunik ere.

Ekora

Garaje bat. Haren barruan nekazaritzako makinak gordetzen direnez, bizitzeko leku gutxi dago.

Lantziegon:

Bizitzeko egokituta ez dagoen lonja bat. Ez du aireztatze-sistematik ezta kaleko argirik ere. Atea besterik ez du. Lurzoruan ez da baldosarik; koltxoiak lurtean dira; eta nekazaritzako lanabesak, tresnak eta makinak daude lonjaren barruan.

Labrazan:

Iragaitzaz dagoen bikote bat aurkitu dugu autoan bizitzen.

Bilarren:

Hainbat langile aurkitu ditugu eremu pribatu batean bizitzen, furgonetatan eta olanetan (lonjaren multzoan sartu ditugu). Ez dute ez argindarririk, ez komunik ezta ur-hartunerik ere. Zelaigune batean daude, mahastien artean, Bilarretik Kripanera doan errepidean eskuinetara, bidea amaitzen den lekuan. 12 lagun bizi dira bertan (6 heldu eta 6 adingabe). Hauxe da lanera datozen laugarren urtea eta, adierazi dutenez, nekazariari agertu izan diote ez daudela pozik bizitokiaren baldintzekin. Are gehiago, etxebizitza bat erdibana alokatzeko proposatu diote nekazariari baina, haien esanetan, nekazariak ez du proposamena onartu.

Obrako blokeekin egindako estalpe batean bizi dira. Etxola ez dago isolatuta, ez zaio akabera eman, eta teilapea besterik ez du. Hiru koltxoi daude etxolaren barruan, blokeekin eta paletekin ohatzea egina. Etxolaren barruan, blokeen eta egurren gainean, butano-sukaldetxoa dago. Dutxa hartzeko, berriz, upeldegira joan daitezke.

Udalari haien egoeraren berri eman ondoren, bertatik desagertu ziren.

Lapuebla de Labarcan:

Medikuaren kontsultaren aurrean aurkitzen da bizitokia. Lonja bat da; txabola bat. Janaria egiteko sukalde txikia du barruan, eta bi lagunentzako hiru koltxoi (palet-gainean bi, eta lurtean beste bat). Etxolaren ondoan gelaxka bat dago. Gune horretan, koltxoiak jartzen dituzte gauean. Hainbat gauza gordetzen dituzte etxolaren ondoko eraikin horretan, adibidez: arropak, norberaren gauzak, garbitzeko produktuak, eta nekazaritzako lanabesak (baita, erabili ondoren, hondar toxikoak dituztenak ere – ongarritzeko makinak eta sulfatatzeoko makinak, adibidez). Bizitoki hura ikustera joan ginenetan, urputzuak zeuden lurtean. Itxura denez, mahats-bilketako gomazko ontziak erabiltzen zituzten arropak garbitzeko, eta baliteke arropak garbitzearen ondorioz sortu izana lurteko ur-putzu horiek. Gasolio-usain handia zen etxolan, erregai horrekin betetako tanga baitzegoen eraikinaren barruan. Lonjak ez du ez kaleko argirik ezta aireztatze-sistematik ere. Bainugela soila du, konketa, komun-ontzia, dutxarako tutu malgua, eta ur beroa dituen. Bainugela, hala ere, ez da nahikoa lonjan bizi diren pertsona guztientzako.

12 lagun bizi dira bertan: 6 heldu (sei hilabeteko haurdun dagoen emakumea barne) eta 6 adingabe.

Eskuernagan:

"Lonja, borda edo biltegia" kategoriaren barruan sartutako bizitokia aurkitu dugu. Bi etxola dira, esparru pribatua, lau paretak dituena eta erdian teilaturik ez duena. Teilatua duten hainbat gela dauzka. Ez du berogailurik eta zementuzko lurzorua du, baldosarik gabekoa. Txabola horietako batean 14 pertsona bizi dira (12 heldu eta 2 adingabe), bestean, aldiz, 20 (13 heldu eta 7 adingabe).

3.3.2. ADINGABEKOEN HIGIENE PERTSONALARI ETA ELIKADURARI BURUZ SENTIBILIZATZEKO ETA GAI HORRETAN LAGUNTZA ESKAINTZEKO PROIEKTUA GAUZATZEA

ELIKADURA

Aurten ez da beharrezkoa izan ikastetxeetan gosaririk banatzea, gosaria hartuta etorri baitira eskolara adingabe guztiak.

Guztira, 60 adingabek bazkaldu dute eskolako jantokietan (Haur Hezkuntzako 17k eta Lehen Hezkuntzako 43k).

Mahats-bilketaren sasoian etorritako ikasleak hartu ahal izateko, jantokiko baliabideak egokitu egin dira. Ez dugu nutrizio-eskasiarik antzeman.

HIGIENE PERTSONALA ETA ARROPEN GARBITASUNA

Dutxak hartzea:

Hasieran, koordinazio-bilerak egin ziren ikastetxe bakoitzarekin. Bilera horietan adostu zen, besteak beste, eskolako jarduera bihurtzea dutxa hartzeko ohitura. Haur guztiek hartu behar dute dutxa, garbi datozenek eta garbi ez zetozenek.

Ondoko ikastetxe hauetan hartu dute dutxa ikasleek:

- a) Lantziegoko Ikastolan, astearte eta ostegunetan, Gorputz Hezkuntza ikasgaiaren ondoren.
- b) Guardiako ikastetxean, egunero.
- c) La Pueblako Ikastolan, bi egunetan behin.
- d) Elciego Ikastetxean, gorputz-hezkuntza ikasgaiaren saio luzearen ondotik. Astean behin.

Higiene-behar horiek estaltzeko asmoz, ondoko baliabide hauek eman dizkie Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak ikastetxeei: toallak, gela, xanpua, Kolonia ura, orraziak, belakiak, eta ile-lehorgailuak.

Ikastetxeetako irakasle laguntzaileak arduratu dira ikasleek dutxa hartzeaz. Zenbait kasutan –Lantziegoko Ikastolan, esaterako– zuzendaritza-taldekoen laguntza izan zuten irakasleek.

Arropak

Guardiako Samaniego jauregiko gela txiki batean arropak bildu dira, eta haren beharra duten familiei eskaini zaizkie.

Erabili ez dituzten arropak Logroño ingurura eramán ditugu, arropak birziklatzen dituzten toki batera.

OSASUN FISIKOA

Sasoikako langileen artean ez dugu osasun-arazorik antzeman. Eskura dituzten baliabide medikoei buruzko informazioa eman diegu haien beharra izan duten familiei.

Aurreko urteetan egin bezalaxe, ahoa eta hortzak garbitzeko materiala, hau da, hortzetako eskuilak (Osakidetzak emandakoak) eta hortzetako pasta eman zaie ikastetxeei, gaia lan dezaten.

Haurrak eskolatzerakoan, haur bakoitzaren osasun-egoerari buruz galdetu zaie familiei; eta kontuan hartzeko moduko arazorik ba ote zen. Adingabeetatik inork ez du izan ikastetxeari jakinarazi beharreko arazorik.

4. GIZARTE SENTSIBILIZAZIOA

Lantaldeko kideak: Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako Saila (Gizarte Sustapeneko Zuzendaritza); Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila; Gobernuaren Ordezkariordeztza Araban; IMK; Cáritas; UAGA; eta EUDEL.

4.1. GIZARTEAREN ETA SASOIKAKO LANGILEEN SENTSIBILIZAZIOA

4.2. KULTURA-ARTEKO JARDUERA LUDIKOAK, KULTURA-ARTEKOTASUNEAN TREBATZEA ETA KULTURA-ARTEKO KOMUNITATE-BITARTEKOTZAK

Arduraduna: Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako Saila

Hainbat jarduera gauzatu dira Guardia eta Arabako Errioxako koadrilan nahiz Aguraingoan. Hau da, eremu horretako hainbat erakunde publiko eta pribaturi diru-laguntzak eman zaizkie immigranteak gizarteratzearekin, kultura-artekotasunean sentsibilizatzearekin, eta kultura-arte bizikidetasunarekin lotura duten proiektuak gara ditzaten.

1) IRABAZI-ASMORIK GABEKO ELKARTEAK ETA ERAKUNDEAK:

1. Alai – Lazos de Amistad con el Inmigrante elkartea

""

LABURPENA: Programa horren bidez, bizitzako alderdi guztietan eskaini zitzaizen laguntza udalerrira etorritako immigranteei. Batetik, Banco de Alimentos fundazioak emandako elikagaiak eman zitzaizkien. Bestetik, ikasteko laguntza-eskolak antolatu ziren, gaztelaniaz nahiz arabieraz; eta hainbat topagune prestatu, gainerako herritarrak ezagutu eta haiekin harremanean egon zitezen immigranteak. Aipatutakoez gain, kulturen artean suerta litezkeen arazoak gainditzeko asmoz, itzulpen-zerbitzua eta kultura-arte bitartekotza-zerbitzua sustatu ziren.

Kokalekua: Agurain

2. Haurralde

“Conoce África desde su Cultura”

LABURPENA: Haien kulturaren eta kultura-ondarearen ikuspegi positiboaren ezagutaraztearen bidez, afrikarrak gizarteratzea eta afrikarren berdintasuna sustatzeko proiektua. Helburu hori betetzeko asmoz, hainbat jarduera gauzatu ziren, besteak beste: Kamerun eta Kenyako emakumeen batik-erakusketa eta -tailerra; Afrikako zinema-zikloa; Afrikako emakumeari eta literaturari buruzko tailerrak; eta Afrikari eta giza eskubideei buruzko kultura-arte tailerrak. Guardian, gainera, hainbat irratsaio egin ziren.

Kokalekua: Gasteiz, Agurain, Oion, Guardia eta Ekora.

3. San Bizente Ikastolako guraso-elkartea

“Ritmos, colores, sabores”

LABURPENA: Oiongo ikastetxeko eta udalerriko hainbat kultura ezagutarazteko eta balioesteko proiektua. Hainbat jarduera egin ziren ikastolan: kultura-artekotasunari buruzko tailerrak; bideoforumak; munduko musikak; munduko jakien dastatzea, eta abar. Horrela, aisialdiko jardueren bitartez, aniztasuna zer nolako aberasgarria den erakutsi zen.

Kokalekua: Oion

4. Era Berri taldea

“Programa de sensibilización intercultural. Somos iguales, somos diferentes”

LABURPENA: Lehen Hezkuntzako lehen, bigarren eta hirugarren zikloko ikasleekin hainbat jarduera ludiko eta tutoretza-jarduera egiteko proiektua. Jarduera horien helburuak izan ziren: haurren eskubideak ezagutaraztea eta ulertaraztea; ezaugarri bereizgarriak ezagutzea; tolerantziarik eta elkartasunik ez den egoerei buruz hausnarketa egitea; enpatia, elkartasuna eta era horretako balioak sustatzea; migrazio-prozesuen ezaugarriak aztertzea; eta abar.

Kokalekua: Oion, Eltziego, Lantziego, Bastida, Lapuebla de Labarca, Guardia, Santikurutze Kanpezu, eta Agurain.

5. Comisión de Ayuda al Refugiado CEAR Euskadi

“La convivencia intercultural en las agendas política, social y ciudadana alavesas”

LABURPENA: Proiektuaren helburua izan zen, kulturen arteko gatazkak sortzen diren esparruei, bizikidetzaz-esparruei, eta hainbat kultura aldi berean egoteko esparruei buruzko azterlanaren ondorioak eta Arabako kultura-artekotasunaren kartograma sozializatzea gizarteko eragile publikoen eta pribatuen artean (hau da, Gasteizko, Aguraingo, Guardiako, eta beste udalerrri batzuetako eragileen artean).

6. UAGA (Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkarte).

“Proyecto de actividades de integración social e intercambio cultural”

LABURPENA: Sentsibilizazio-proiektua izan zen. Mahastizaintzan aritzekoak ziren eta jatorrizko udalerrian UAGAK kontratatutako Marokoko sasoikako langileen beharrak aztertzea zen proiektu horren helburu nagusia. Horrez gain, pertsonen arteko harremanak errazteko eta lanetik kanpo pertsonak ezagut daitezela lortzeko asmoz, kultura-arteko jaia egin zen mahats-bilketaren amaieran.

Kokalekua: Arabako Errioxa.

7. Mnemocine

“Mahats-bilketak. Vendimias”

LABURPENA: 2009an egindako tailerraren bidez hasitako esku-hartze prozesuari eusteko asmoz egin zen proiektu hori. Taldea dinamizatzea eta egindako lana bueltan ematea zuen helburu. Aldez aurretik bildutako materialarekin ikus-entzunezko artxibo bat editatu zen. Herritar orok ikus zezakeen grabazio hori, baita immigrazioaren eta kultura-artekotasunaren alorreko sare pribatu nahiz publikoetako kideek ere.

Kokalekua: Arabako Errioxa, eta koadrila hartako hainbat udalerrri.

8. Asociación Cultural Alternativa Juvenil

“Exposición de tradiciones y cultura folclórica”

LABURPENA: Artisautza-erakusketa egitea: dantza-erakusketa; mitoak eta kondairak kontatzea; musika-eritimoen erakusketa; eta haurrentzako hainbat jardura. Erakusketa horren helburua izan zen kultura-arteko harremanak sortzea; immigranteen eta bertakoen arteko harremana sustatzea; eta beste tradizio eta usadio batzuk dituzten beste kultura eta herri batzuekiko sentsibilizazioa lantzea.

Kokalekua: Gasteiz, Agurain, Guardia.

9. Entretanto Entretente - Bitartean Jolasean

“Would you know me?”

LABURPENA: 5 eta 12 urte bitarteko gazteentzako tailerrak. Tailer horietan landu ziren, besteak beste, hainbat kulturaren egungo egoera eta hainbat herrialdetako bizi-baldintzak. Proiektuaren bidez, beraz, ondoko hauek sustatu nahi ziren: beste hizkuntza batzuk ezagutzeko interesa piztea gazteen baitan; gazteek ezagut ditzatela gizartean sartzeko immigranteek dituzten arazoak; eta gazteek beste kultura batzuetako pertsonekin informazioa elkar truka dezatela sustatzea.

Kokalekua: Oion

2) ARABAKO UDALERRIAK ETA KOADRILAK:

1. Asparrenako Udala

“Programa de integración y sensibilización sobre la interculturalidad”

LABURPENA: Ondo bereizitako bi zatitan banaturik dago programa hori. Programaren zati baten helburua da mintzalagun-talde bidez immigranteak gizarteratzea. Beste zatiaren helburua, aldiz, herritarrak sentsibilizatzea da, udalerrian bizi diren haur- nahiz familia-immigranteak eta betakoak elkar ezagutzeko esparruaren bidez.

2. Aguraingo Udala

“Programa de dinamización social para la igualdad de derechos y convivencia”

LABURPENA: Gizartea dinamizatzeko programa da. Programa horrek oinarritzat hartzen du hainbat aldaketa gauzatu behar direla, batetik, kulturen arteko bizikidetzaz egokia izan dadin eta, bestetik, immigranteak udalerriko bizitzan sar daitezzen eta hainbat jardueratan parte har dezaten.

3. Dulantziko Udala

“Programa de integración a personas extranjeras”

LABURPENA: Atzerritarrei zuzendutako bizikidetza- eta ikaskuntza-programa. Programa horren helburua da atzerritarrek eztabaidatzeko eta gogoeta egiteko gunea sortzea. Horrela, zenbait aldaketa positibo gertatuko ziren talde horretan eta, ondorioz, gainerako herritarren baldintza berberetan gizarteratzeko aukera izango zuten atzerritarrek. Programaren bidez sustatu nahi da, baita ere, atzerritarrek gaztelania erabil dezatela udalerrian bizi ziren herritarrekin harremanean egoteko.

4. Burgeluko Udala

“Semana solidaria de Elburgo”

LABURPENA: Elkartasun-astea antolatuzko proiektua. Udalerriko immigranteak eta bertako herritarrak sensibilizatzeko eta haien parte-hartzea sustatzeko asmoz, hainbat jardura egin ziren aste batean, hala nola: kultura-arteko tailerrak; jolas-jarduerak; bideo-foruma; bidezko merkataritzaren saltokiak; indigenei buruzko filmen emanaldia; eta erakusketa gidatuak.

5. Bastidako Udala

“Programa de interculturalidad en Labastida”

LABURPENA: Sentsibilizazio-programa horren bidez, hainbat jardura gauzatu ziren (tailerrak eta antzezlanak), batetik, immigranteen gizarteratzea sustatzeko eta, bestetik, atzerritarrak eta bertako bizilagunak harremanean izan daitezten.

6. Oiongo Udala

“Formación en Oyón-Oion a personas inmigradas y/o vulnerables para promover la inclusión”

LABURPENA: Immigranteak edo gizarte-egoera larrian diren pertsonak gizarteratzeko eta lan-munduratzeko ikastaroa diseinatu, egin eta ebaluatzeko proiektua. Hortaz, pertsona horiek gizarteratzeko asmoz, upeldegia zaindiko duen teknikariak ezagutu beharreko oinarrizko soldatze- eta elektrizitate-eginbeharrak irakatsi zitzaizkien parte-hartzaileei; teoria nahiz praktika.

7. Lezako Udala

“Elkarrekin begira - Miradas compartidas 2010”

LABURPENA: Herritarrak eta kultura-arteko bizikidetzaren alorreko eragileak harremanean egoteko esparruak sortzea proposatu du proiektu horrek. Gainera, herritarrak kontzientziatzeko eta sensibilizatzeko asmoz, hainbat jardura gauzatu beharko ziren, hala nola: sareak sortzea eta dinamizatzea; mahats-bilketari eta sasoikako lanari buruzko bideo bat egitea; eta abar.

8. Lezako Udala

“Semana intercultural”

LABURPENA: San Martin astearen barruan, kultura-artekotasunaren astea egiteko proiektua dugu goiko hori. Beste kulturekiko jarrera positiboa sustatu nahian, hainbat jardura gauzatuko dira, besteak beste: sukaldaritza-tailerrak; munduko beste herrialde batzuetako eskulanak; eta kultura-arteko ipuin-kontalaria.

9. Moreda Arabako Udala

“Programa Intercultural en Moreda: Actividades para conocernos”

LABURPENA: Emakumezko immigranteak gizarteratzea helburu duen sensibilizazio-programa dugu goiko hori. Haren helburua da immigranteak gizarteratzea eta komunitateko bizitzan parte har dezatela. Horretarako, hainbat jardura gauzatuko dira, adibidez: kultura-artekotasunari buruzko tailerrak, perkusio-tailerrak, ahozko kontakizunen tailerrak, eta abar.

10. Bilarko Udala

“IV. Encuentro de niños y niñas bielorrusas de Rioja Alavesa”

LABURPENA: Bielorrusiako haurren IV. topaketan kultura-arteko hainbat jardura gauzatzeko proiektua dugu goiko hori. Proiektuaren helburua da, hain zuzen, herritarrek lagun dezatela immigranteekin duten harremana indartzen.

11. Guardiako Udala

“Semana intercultural”

LABURPENA: Kultura-artekotasunari buruzko astea egiteko proiektua. Jokabide eta ohitura positiboak sortzeko nahiz arrazakeria prebenitzeko asmoz, haurrentzako hainbat tailer egingo dira aste horretan, hala nola: txirikordak; alezko apaingarriak; henna; eta dantzak.

12. Ekorako Udala

“Yécora intercultural”

LABURPENA: Zonako herritarren bizitzan immigranteek parte har dezaten eta zonan bizi diren pertsonen arteko harremana indartzeko asmoz, kultura-arteko hainbat jarduera gauzatuko dira programa horren bidez, adibidez: haurrentzako tailerrak; gazte eta helduentzako tailerrak; erakusketa bat; hitzaldiak; eta abar.

13. Guardia-Arabako Errioxako Koadrila

“Rincón de juegos intercultural”

LABURPENA: Denbora librean kultura-arteko aisialdia eta balio-hezkuntza lantzeko esparrua sortzeko proiektua dugu goiko hori. Bertako nahiz kanpotik etorritako haurrak, gazteak eta horien familiak eskolaz kanpo elkar ezagutu daitezten, hainbat jarduera gauzatuko dira: jolasak; musika; eta eskulanak.

14. Guardia-Arabako Errioxako Koadrila

“Curso de castellano para personas extranjeras”

LABURPENA: Atzerritarrentzako gaztelania-ikastaroa egitea. Eskolak astean lau egunez izango dira, 2010eko ikasturtean. Ezaugarri desberdinak dituzten 8 talde sortuko dira. Zonako Helduen Hezkuntzako departamentuarekin batera koordinatuko da taldeon jarduna.

Jarraian, beste gai bati helduko diogu. Familiek adingabeak lekuz alda ez ditzatela lortzeko, sentsibilizazio-kanpainak egin beharko lirateke jatorrizko udalerrian. 2008an gertatu bezalaxe, 2010ean ez da era horretako kanpainarik egin aurretiazko txostenetan adierazitako arrazoiengatik. Hau da, Zuzendaritza honek ez du baliabiderik jatorrizko herrialdean gauzatu beharreko kanpaina hori egiteko.

Aipatu beharra dago, baita ere, “Guía para el nuevo vecindario de la Cuadrilla de Laguardia-Rioja Alavesa” izeneko gida egin eta argitaratu dela. Idatzi horretan jaso dira, besteak beste, koadrilako egunean eguneko bizikidetzan beharrezkoak diren baliabideak, zerbitzuak eta auziak. Zuzendaritza honek egin du gida hori, Itsasmendikoi eta Europako Gizarte Funtzaren laguntzarekin.

Ezin aipatu gabe utzi immigrazioaren, bizikidetzaren, kultura-artekotasunaren eta sasoikako lanarekin lotutako arazoen inguruan Arabako Errioxako Bizikidetzeta eta Kultura-artekotasun Mahaiak egindako lana. Erakunde horren helburua da herritar berrien –bertan biziko direnen nahiz aldi baterako etorritakoen– beharrak hautemateko eta bizikidetzeta zaintzeko programak nahiz lan-ereduak aztertzea, diseinatzea, eta martxan jartzea.

AURREIKUSITAKO JARDUEREN AZTERKETA

2010. urterako programatuta zeuden ekintzak banan-banan aztertuko ditugu, proposatutako helburuak bete ote diren egiaztatzeko.

1. LAN-EREMUA: KONTRATAZIO-BALDINTZAK HOBETZEA

1.1. LANGILEAK JATORRIZKO HERRIALDEAN KONTRATATZEA SUSTATZEA

EKINTZAK	ARDURADUNAK	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	BETETZE-MAILA
1.1.1. JATORRIKO KONTRATAZIOA	Eusko Jaurlaritza	ENHE Gizarte Saileko Zuzendaritza (Administrazio Publikoetako Ministerioa) Gobernuaren Ordezkariordeztza	<i>Helburua:</i> kontratazioak %20 haztea. jarduera EAeko lurralde guztietara bedatzea. Aurreko urteko joera berbera izan da 2010ean: lanaldien kopuruak behera egin du (2009an 10085 izan ziren; 2010ean, aldiz, 10066); murriztu egin da, baita ere, ustategien kopurua (288tik 282ra); eta langileen kopuruak gora egin du (2009an 680 langile izan ziren; 2010ean, aldiz, 739). Bultzada baten beharra du programak, joera aldatu dadin. Bestela, programa ezin izango da mantendu.
1.1.2. AZPIKONTRATAZIO- ETA LEGEZKOTASUN-KONTUETAN NEKAZARIAK SENTSIBILIZATZEKO KANPAINA	Foru Aldundiak EUSKO JAURLARITZA Gobernuaren Ordezkariordeztza		<i>Helburua:</i> Urteko 5 bilera egitea. Gutxienez 300 pertsona. Gai berriak lantzea- LAP. Inguruko udalak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak inplikatzera. 3 bilera egin ziren. Ia 1.000 pertsonari egin zitzaizen bilerarako deia, eta 43 besterik ez ziren agertu. Beste batzuk: irratia, prentsurrekoa, udal-bandoa, Ardatza aldizkaria, eta UAGAren hitzaldiak –informazio-eta sentsibilizazio-kanpainen aurretik egindakoak–.
1.1.3. KONTRATAZIO-PROGRAMA ZABALTZEA	ENHE	Foru Aldundiak Gobernuaren Ordezkariordeztza	<i>Helburua:</i> Ustategi guztiari postak bidaltzea. 1.1.2 jarduera gauzatzeko erabilitako bitarteko berekin gauzatu da ekintza hau. Horrez gain, patata- eta mahats-bilketaren kanpainari buruzko triptikoak egin ziren.

Oharrak: Ekintza guztiak gauzatu diren arren, helburuak ez dira bete.

1. LAN-EREMUA: KONTRATAZIO-BALDINTZAK HOBETZEA

1.2. JARDUERA.- DAGOZKION LAN-IKUSKATZAILETZAK EGITEA

EKINTZAK	ARDURADUNAK	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	BETETZE-MAILA
1.2.1. SASOIKAKO LANGILEEN KONTRATUAK ETA LAN-BALDINTZAK IKUSKATZEA	Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila	Lan Ikuskatzailetza (Gobernuaren Ordezkariordetza Araban)	<i>Helburua:</i> Udaberriko kimaketara eta altsumak kentzeko lanetara hedatzea Bereziki, adingabeak lanean aritzen ote diren zaintza proposatzen da. Mahats-bilketan besterik ez da ikuskatzerik izan.
1.2.2. SALAKETAK JARTZEA ERRAZTUKO DUTEN ETA SALATZAILEAREN SEGURTASUNA BERMATUKO DUTEN MEKANISMOAK EZARTZEA	Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila Gobernuaren Ordezkariordetza	Eusko Jaurlaritza Lan Ikuskatzailetza	<i>Helburua:</i> Informazio-eskaera guztiei erantzutea. Portugalgo enbaxadarekin barremanetan jartzea herrialde hartan informazio-kanpaina bat egiteko. Heldu erakundearen bitartez egin da 2010eko uztailera arte; eta, uztailetik aurrera, Immigranteei Laguntza Koordinatzeko Unitatearen bidez. Sasoikako lanarekin lotura duen kasurik ez da egon.
1.2.3. SALBUESPENEZKO EGOERA ESKATZEN DUTEN SALATZAILEEI EGIN BEHARREKO IZAPIDEETAN LAGUNTZA EMATEA	Gobernuaren Ordezkariordetza	Eusko Jaurlaritza Gobernuaren Ordezkariordetza Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	<i>Helburua:</i> Laguntza-eskaera guztiei erantzutea. Ez da salaketarik jarri.

Oharrak: Jarduerak partzialki gauzatu zitzaizkien ditugu.

1. LAN-EREMUA: KONTRATAZIO-BALDINTZAK HOBETZEA

1.3. JARDUERA.- LANBIDE-HEZIKETA SUSTATZEA

EKINTZAK	ARDURADUNAK	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	BETETZE-MAILA
1.3.1. SASOIKAKO LANGILEENTZAKO TREBAKUNTZA-PROGRAMAK FINKATZEA	Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila	Foru Aldundiak ENHE Itsasmendikoi S.A.	<i>Helburua: 25 ikastaro egitea.</i> Mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektoreko lan-arriskuak prebenitzeko ikastaroa eskaini da, baina inork ez du hartan izena eman. Aurreko urteetan arituak direnez, langileek ez dute udaberriko kimaketari eta altsumak kentzeari buruzko prestakuntzaren beharrik izan.
1.3.2. NEKAZARI KONTRATZAILEENTZAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMAK FINKATZEA	Eusko Jaurlaritza	Foru Aldundiak Itsasmendikoi S.A.	<i>Helburua: 25 ikastaro egitea.</i> 1.3.1 eta 1.3.3 ataletan esandakoa.
1.3.3. LAN-ISTRIPUEN PREBENTZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA AHOLKUAK EMATEA NEKAZARIEI ETA SASOIKAKO LANGILEEI	Eusko Jaurlaritza	Osalan Lan-sindikatuak ENHE Itsasmendikoi. SA Lan Ikuskatzailtza	<i>Helburua:</i> <i>Jardueran zeresana duten erakundeek zehaztuko dute bete beharreko araudia. Jarduera hau aurreko ataletako ikastaroetan txertatzea.</i> Istripu-tasei buruzko informazioa eta aholkuak eman, orriak banatu, enpresetara bisitak egin eta agiriak banatu ditu Osalanek. Aholku eske doazkion ustiatzeari gomendioak ematen dizkie UAGAK.

Oharrak: Gauzatutzat jotzen ditugu jarduerak.

1. LAN-EREMUA: KONTRATAZIO-BALDINTZAK HOBETZEA

1.4. JARDUERA.- LAN-POLTSA MANTENTZEA

EKINTZAK	ARDURADUNAK	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	BETETZE-MAILA
1.4.1. ESKAINTZA ETA ESKAEREN PROZESAMENDUA AHALIK ETA GEHIEN ERRAZTEKO, ARINTZEKO ETA DOITZEKO EUSKARRI INFORMATIKOA EGUNERATZEA	Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila	Eusko Jaurlaritza Lanbide Gobernuaren Ordezkariordetza (Lan eta Immigrazio Ministerioa) ENHE IKT S.A.	<i>Helburua: Euskarria kanpainarako eguneratzea.</i> Aplikazioa aldatu da, hainbat hobekuntza sartzearen bidez.
1.4.2. LANGILEEN JATORRIZKO HERRIALDEETAN ERAKUNDE PUBLIKOEN DITUZTEN HITZARMENETAN EDO EEP-ETAN PARTE-HARTZEA BULTZATU, LANGILEAK ERAKARRI ETA HAUTATZEKO	Gobernuaren Ordezkariordetza Araban (Lan eta Immigrazio Ministerioa)	Gobernuaren Ordezkariordetza Araban Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila Foru Aldundiak COAG-ENHE	<i>Helburua: Langileek jatorrizko beren herrialdeetan lanean ari diren erakundeekin, besteak beste, UAGA-COAGekin, lankidetzaren sustatzeko asmoz, Lan Ministerioarekin bilera bat egitea. Langileen jatorrizko herrialdeetako agintaritzekin barremanean jartzea: Portugal eta Errumaniakoekin, batik bat.</i> Langileak are herrialde gehiagotatik etor daitezela lortu nahi da. Sasoikako langile gehienak Marokotik, Errumaniatik, Lituaniatik eta Andaluziatik datoz.

Oharrak: Gauzatutzat jotzen ditugu jarduerak.

1. LAN-EREMUA: KONTRATAZIO-BALDINTZAK HOBETZEA

1.5. JARDUERA.- SASOIKAKO LANAREN NEKAZARITZA-HITZARMENA NEGOZIATZEA

EKINTZAK	ARDURADUNAK	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	BETETZE-MAILA
1.5.1. EAE-RAKO NEKAZARITZA HITZARMENA SUSTATZEA	Gizarte-eragileak: Enpresaburuen elkarteak Sindikatuak Elkarteak	ENHE	<i>Helburuak:</i> Araban mahats-bilketarako eta patataren bilketarako hitzarmen bat lortzeari lebertasuna ematea. <i>Hitzarmena sinatzea</i> Egiteke.
1.5.2. NEKAZARIAK INFORMATZEA ETA SENTSIBILIZATZEA	Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila	Sindikatuak eta profesionalen elkarteak (EHNE) Foru Aldundiak	<i>Helburua:</i> Afiliatu eta ugazaba guztiei informazioa ematea. Egiteke, aurreko ataleko ekintza gauzatzen ez den bitartean.

Oharrak: Ekintzak ez dira gauzatu.

1. LAN-EREMUA: KONTRATAZIO-BALDINTZAK HOBETZEA

1.6. JARDUERA.- INFORMAZIO-BULEGOEN SAREA MANTENTZEA			
EKINTZAK	ARDURADUNAK	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	BETETZE-MAILA
1.6.1. INFORMAZIO-BULEGOEN FUNTZIOAK MANTENTZEA	Eusko Jaurlaritza Lanbide	Foru Aldundiak ENHE Langai Gobernuaren Ordezkariordeztza Araban	<i>Helburua: Mantentzea.</i> Egina.
1.6.2. BULEGOEN KOKAGUNEA MANTENTZEA <ul style="list-style-type: none">• Agurain• Eltziego	Eusko Jaurlaritza Gobernuaren Ordezkariordeztza	Udalak Foru Aldundiak	<i>Helburua: Mantentzea.</i> Egina.
1.6.3. BULEGOEK FUNTZIONATZEKO BEHARREZKOAK DIREN GIZA-BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK MANTENTZEA	Eusko Jaurlaritza	Lanbide Foru Aldundiak Gobernuaren Ordezkariordeztza	<i>Helburua: Mantentzea.</i> Eltziegoko bulegoan, UAGAKo langile bat aritu da GSDOkofuntzionario baten lekuan.
1.6.4. INFORMAZIO-BULEGOEN KOORDINAZIOA ETA KUDEAKETA ZENTRALIZATZEA	Eusko Jaurlaritza	Lanbide Foru Aldundiak Gobernuaren Ordezkariordeztza	<i>Helburua: Egun existitzen diren bi bulegoetan zer zerbitzu eskaintzen diren argi azaltzea sasoikako langileei.</i> Egina.
1.6.5. LANGILEENTZAKO PRESTAKUNTZA-PROGRAMA MANTENTZEA	Eusko Jaurlaritza	Itsasmendikoi S.A. ENHE	<i>Helburua: Programa mantentzea. Programa hori bulegoak ireki baino lehen definitu genuen. Lanean hasi aurretik, trebakuntza-ikastaroa ematen diegu bertan lan egin behar duten langileei.</i> Egina.

Oharrak: Gauzatutzat jotzen ditugu jarduerak.

1. LAN-EREMUA: KONTRATAZIO-BALDINTZAK HOBETZEA

1.7. JARDUERA.- LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEKO ARAUAK BETETZEA

EKINTZAK	ARDURADUNAK	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	BETETZE-MAILA
1.7.1. ARAUDIAN ALDAKETARIK IZANEZ GERO, LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO GIDALIBURUA EGOKITZEA	Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila Eusko Jaurlaritza	Osalan Lan Ikuskatzailtza Itsasmendikoi S.A.	<u>Helburua: Gidaliburua egokitzea eta bura berrargitaratzea.</u>
1.7.2. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO ARAUDIA BETETZEN DEN KONTROLATZEA	Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila Eusko Jaurlaritza	Osalan Lan Ikuskatzailtza Itsasmendikoi S.A.	<u>Helburua: 1.2.1 helburuarekin lotuta dago.</u> 59 ikuskaketa egin ziren. Horien ondorioz, arau-hausteen 3 akta egin ziren, 6.260 euroko isuna jarri, eta 27 errekerimendu egin.

Oharrak: Gauzatutzat jotzen ditugu jarduerak.

1. LAN-EREMUA: KONTRATAZIO-BALDINTZAK HOBETZEA

1.8. JARDUERA.- SASOIKAKO LANGILEENTZAKO DOAKO INFORMAZIO-ZERBITZUA MANTENTZEA

EKINTZAK	ARDURADUNAK	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	BETETZE-MAILA
<p>1.8.1. SASOIKAKO LANGILEENTZAKO DOAKO INFORMAZIO-TELEFONOA MANTENTZEA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzuaren kokalekua: Eltziegoko bulegoa. • Kanpainen bilakaerari, eskulan-beharrari, eta baliabideei buruzko informazioa. Zerbitzua nazio-mailan eta nazioartean hedatzea. 	<p>Eusko Jaurlaritza</p>	<p>Eusko Jaurlaritza</p> <p>Itsasmendikoi S.A.</p> <p>COAG/ENHE</p> <p>Gobernuaren Ordezkariordeztza</p> <p>Lan Ikuskatzaitza</p>	<p><i>Helburua: Informazio-eskaera guztiei erantzutea</i></p> <p>Egina.</p>

Oharrak: Gauzatutzat jo dugu jarduera.

2. LAN-EREMUA: BIZITOKIAK

2.1. JARDUERA.- SASOIKAKO LANGILEENTZAKO TALDEKO BIZITOKI PUBLIKOEN NAHIZ PRIBATUEN SAREA HANDITZEA ETA HOBETZEA

EKINTZAK	ARDURADUNAK	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	BETETZE-MAILA
2.1.1. BIZITOKI IZAN DAITEZKEEN UDAL-LOKALAK AURKITZEKO ASMOZ, SASOIKAKO LANAREN ARRETARAKO PLAN OROKORRARI BURUZ UDALEI INFORMAZIOA EMATEKO PROGRAMA MANTENTZEA, TALDEENTZAKO BIZITOKIEI BURUZKO ATALEAN.	Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila	Foru Aldundiak Nekazaritzako sindikatuak (ENHE) EUDEL Itsasmendikoi S.A.	<i>Helburua: Programa mantentzea.</i> Egina.
2.1.2. ESTATUKO ETA ESPAINIAKO ESTATUKO BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGOETAKO LAGUNTZA PUBLIKOEI BURUZKO LEGEZKO XEDAPENEN JARRAIPENA EGITEA	Eusko Jaurlaritza		<i>Helburua: 5 arau berrikusi edota erkatzea.</i> Lan eta Immigrazio Ministerioaren nahiz beste autonomia-erkidego batzuen arauak erkatzea.
2.1.3. SASOIKAKO LANGILEENTZAKO EGOITZA PUBLIKO ETA PRIBATUEN SAREAREN POLTSA SORTZEA ETA KUDEATZEA, KONTRATUGILEEN ETA KONTRATATUEN INFORMAZIO-BULEGOEN BITARTEZ.	Eusko Jaurlaritza ENHE	Foru Aldundiak EUDEL Itsasmendikoi S.A.	<i>Helburua: poltza sortzea.</i> Bizitokien sarea du UAGAk, jatorrian kontratatze programan izena eman dutenentzat.
2.1.4.	Eusko Jaurlaritza	Foru Aldundiak Nekazaritzako sindikatuak (ENHE) EUDEL Itsasmendikoi S.A.	Bizitokien sarea du UAGAk, jatorrian kontratatze programan izena eman dutenentzat.

Oharrak: Partzialki gauzatuak jotzen ditugu jarduera horiek.

2. LAN-EREMUA: BIZITOKIAK

2.2. JARDUERA.- SASOIKAKO LANGILEENTZAKO BIZITOKIAK SORTU EDO TA EGOKITZEKO LAGUNTZEN ETA DIRU-LAGUNTZEN PLANA MANTENTZEA			
EKINTZAK	ARDURADUNAK	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	BETETZE-MAILA
2.2.1 SASOIKAKO LANGILEENTZAKO BIZITOKI KOMUNITARIOAK SORTU EDO EGOKITZEKO LAGUNTZEN ETA DIRU-LAGUNTZEN APLIKAZIOA ETA KUDEAKETA MANTENTZEA	Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila		<i>Helburua: Urtero 100 plaza gehiago izatea.</i> 2 bizitokirentzat emandako laguntzen bidez, 8 plaza berri sortu eta 25 hobetu dira.
2.2.2. BIZITOKIAK IKUSKATZEKO SISTEMA EZARTZEA	Eusko Jaurlaritza		<i>Helburua: Sistema hori ezartzea.</i> Diru-laguntzarik jaso duten bizitokiak ikuskatu dira. Horrez gain, jatorrian kontratatzeke programan erabilitako bizitokiak aztertu ditu UAGAk.
2.2.3. BIZITOKIEI BURUZKO ARAUDIA AZTERTZEA, BERAU HOBETU AHAL IZATEKO.	Eusko Jaurlaritza	Foru Aldundiak ENHE	<i>Helburua: 2008ko ekaina baino lehen aztertzea.</i> 2010ean egin zen.

Oharrak: Partzialki gauzatu dira ekintza horiek.

3. LAN-EREMUA: ADINGABEEN ARRETA

3.1. JARDUERA.- ADINGABEEN ESKOLATZEA

EKINTZAK	ARDURADUNAK	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	BETETZE-MAILA
3.1.1. SASOIKAKO LANGILEEN FAMILIETAKO ADINGABEAK ESKOLATZEKO LAGUNTZA ESKAINTZEA ETA GAI HORRI BURUZ SENTSIBILIZATZEA	Eusko Jaurlaritza Foru Aldundiak	Foru Aldundiak	<u>Helburua:</u> Eskera guztiari erantzutea. Mahats-bilketan eskolatutako haurren kopurua murriztu da; 61 haur eskolatu dira Arabako Errioxako 5 ikastetxetan. Adingabeen gizarteratzeak gora egin du.

Oharrak: Jarduera gauzatu da.

3. LAN-EREMUA: ADINGABEEN ARRETA

3.2. JARDUERA.- HEZKUNTZAKO ESKAINTZA EGOKITZEKO BALIABIDEAK KOORDINATZEA			
EKINTZAK	ARDURADUNAK	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	BETETZE-MAILA
3.2.1. GIZA BALIABIDEAK EGOKITZEA <ul style="list-style-type: none"> • Laguntzeko behar diren langileen plangintza egitea: kopurua eta egitekoak zehaztea. • Irakasle laguntzaileentzako prestakuntza-plana, sasoikako langileen familietako adingabeen integrazioa bultzatzea xede duena. 	Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	Foru Aldundiak	<i>Helburua: 3.1.1 ataleko helburu bera.</i> Egina.
3.2.2. BALIABIDE MATERIALAK EGOKITZEA <ul style="list-style-type: none"> • Eskolako materiala. • Garraio-zerbitzuak egokitzea. • Jantoki-zerbitzua egokitzea. 	Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	Foru Aldundiak	<i>Helburua: 3.1.1 ataleko helburu bera.</i> Aurreko urteetan bezala, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea arduratu dira ekintza honetako hiru puntuez.

Oharrak: Gauzatuatzat jotzen ditugu jarduerak.

3. LAN-EREMUA: ADINGABEEN ARRETA

3.3. JARDUERA.- GIZARTEAREN ETA HEZKUNTZAREN ALORREKO PROGRAMAK PLANEATZEA ETA GAUZATZEA			
EKINTZAK	ARDURADUNAK	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	BETETZE-MAILA
3.3.1. ADINGABEAK DITUZTEN SASOIKAKO LANGILEEN FAMILIEN ERROLDAK EGUNERATZEA	Foru Aldundiak		<i>Helburua: Eskaera guztiari erantzutea.</i> Azken urteotan, gero eta langile gutxiago datoz Kanpezura, Arabako Mendialdera eta Agurainera (Agurainen, esaterako, ez da adingaberik izan aurten). Horregatik, lantalde bakarra izan da <u>Arabako Errioxan</u> . 2010eko erroldan 1.100 pertsona sartu ziren. Horietatik 160 adingabeko izan ziren. 2009an, ordea, 1.656 lagun sartu ziren erroldan eta, horietatik 201 adingabeak ziren.
3.3.2. SASOIKAKO LANGILEEN FAMILIETAKO ADINGABEEN HIGIENE PERTSONALARI ETA ELIKADURARI BURUZKO SENTSIBILIZAZIO-PROIEKTU BAT EGITEA. PROIEKTU HORI ADINGABEEI, BEREN FAMILIEI, ETA ZUZENEAN EDO ZEHARKA ADINGABEEN GARBITASUNEAN ETA ELIKADURAN ZERIKUSIA DUTEN ERAGILEEI ZUZENDUTA EGONGO DA.	Foru Aldundiak	Udalak Eusko Jaurlaritza Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	<i>Helburua: Eskaera guztiari erantzutea.</i> Egina.
3.3.3. SASOIKAKO LANGILEEN FAMILIEN, TUTOREEN, IRAKASLE LAGUNTZAILEEN ETA HARRERA-HERRIKO HERRITARREN ARTEKO HARREMANAK SORTZEKO ETA INDARTZEKO JARDUERAK LANTZEA, PLANIFIKATZEA ETA GAUZATZEA.	Foru Aldundiak	Udalak Eusko Jaurlaritza Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	<i>Helburua: Eskaera guztiari erantzutea.</i> Egina.

Oharrak: Gauzatu zatzen ditugu jarduerak.

4. LAN-EREMUA: SENTSIBILIZAZIOA

4.1. JARDUERA.- GIZARTEAREN ETA SASOIKAKO LANGILEEN SENTSIBILIZAZIOA			
EKINTZAK	ARDURADUNAK	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	BETETZE-MAILA
4.1.1. HERRITAR GUZTIAK SENTSIBILIZATZEKO JARDUERAK MANTENTZEA (NEKAZARITZAKO ENPRESARIAK, SASOIKAKO LANGILEAK, GIZARTEA OROKORREAN)	Eusko Jaurlaritza Foru Aldundiak EUDEL	ENHE Irabazi-asmorik gabeko erakundeak Gobernuaren Ordezkariordeztza	<i>Helburua: Lankidetzaren eskaera guztiei erantzutea.</i> Integratioari, sentsibilizatioari, eta kultura-arteko bizikidetzari buruzko proiektuak gauzatu dira Guardia, Arabako Errioxa, eta Aguraingo koadriletan.
4.1.2. SASOIKAKO KANPAINAK ANTOLATZEN DITUZTEN EAE-KO HERRIETAN BIZI DIREN SASOIKAKO LANGILEEI ZUZENDUTAKO SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK EGITEA. ADINGABEEN BAZTERKETA SAHIESTEKO ASMOZ, SASOIKAKO LANGILEEN JATORRIZKO HERRIALDEETAN SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK EGITEA.	Eusko Jaurlaritza Foru Aldundiak EUDEL	ENHE Irabazi-asmorik gabeko erakundeak Gobernuaren Ordezkariordeztza	<i>Helburua: Lankidetzaren eskaera guztiei erantzutea.</i> Adingabeak lekuz alda ditzatela saihesteko asmoz, hainbat kanpaina egin nahi ziren langileen jatorrizko herrialdeetan. Kanpaina horiek ez dira egin, ez baitugu horiek egiteko baliabiderik. Gainerako ekintzak, ordea, aurreko jarduerarekin batera gauzatu dira.

Oharrak: Gauzatu ez diren jarduerak.

4. LAN-EREMUA: SENTSIBILIZAZIOA

4.2. JARDUERA.- KULTURA-ARTEKO JARDUERA LUDIKOAK, KULTURA-ARTEKOTASUNEAN TREBATZEA ETA KULTURA-ARTEKO KOMUNITATE-BITARTEKOTZAK			
EKINTZAK	ARDURADUNAK	PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK	BETETZE-MAILA
4.2.1. TOKIAN TOKIKO BIZTANLE ETA SASOIKAKO LANGILEENTZAKO KULTURA-ARTEKO JARDUERAK DISEINATZEA ETA GARATZEA	Eusko Jaurlaritza Foru Aldundiak EUDEL	Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	<i>Helburua: Lankidetzaren eskaera guztiei erantzutea.</i> Integrazioari, sentsibilizazioari, eta kultura-artearen bizikidetzari buruzko proiektuak gauzatu dira Guardia, Arabako Errioxa, eta Aguraingo koadriletan.
4.2.2. KULTURA-ARTEKOTASUNARI BURUZKO IKASTARO BAT DISEINATZEA ETA GAUZATZEA. SASOIKAKO LANEAN ZERESANA DUTEN ERAGILEEK HARTUKO DUTE PARTE IKASTAROAN.	Eusko Jaurlaritza Foru Aldundiak EUDEL	Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	<i>Helburua: Lankidetzaren eskaera guztiei erantzutea.</i> 4.2.1. jarduerarekin batera gauzatu da ekintza hau.
4.2.3. SASOIKAKO LANEAN ZERESANA DUTEN ERAGILEEK ESKATUTA, KULTURA-ARTEKO BITARTEKOTZARI BURUZKO SAIOAK DISEINATZEA ETA GARATZEA	Eusko Jaurlaritza Foru Aldundiak EUDEL	Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	<i>Helburua: Lankidetzaren eskaera guztiei erantzutea.</i> 4.2.1. jarduerarekin batera gauzatu da ekintza hau.

Oharrak: Gauzatu ez diren jarduerak.

BETEARAZITAKO AURREKONTUEN AZTERKETA

Ondoko aurrekontu hauek betearazi dira 2010ean:

ERAKUNDEA	JARDUERA/KONTZEPTUA	BETEARAZITAKOA (€) 2010
GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA ARABAKO FORU ALDUNDIA	Arabako Errioxan, Agurainen eta Kanpezun Gizarte Hezkuntzazko Programak planifikatzea eta gauzatzea.	10.364,25
GAZTERIA ETA GIZARTE SUSTAPENERAKO SAILA ARABAKO FORU ALDUNDIA	Gizartearen eta sasoikako langileen sentsibilizazioa eta kultura-artekotasuna (1)	30.000
NEKAZARITZA SAILA ARABAKO FORU ALDUNDIA	Langileak jatorrizko herrialdean kontrata daitezela sustatzea	6.000
ARABAKO FORU ALDUNDIA	GUZTIRA	46.364,25
EUSKO JAURLARITZAKO INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA	Aplikazio informatikoa	5.967,64
	Informazio-bulegoak (2)	20.493,23
	Bizitokiak sortu eta hobetzeko laguntzak	21.014,06
	Komunitatea zaintzeko laguntza	7.320,50
	Jatorrizko herrialdeetako kontratazioa eta horretarako Gizarteratze Mahaiaren laguntza teknikoa (2)	204.317,87
EUSKO JAURLARITZA	GUZTIRA	259.113,30
GUZTIRA		305.477,55

(1) Lurraldeko hainbat tokitan garatutako immigrazioari buruzko egitasmoaren kostua 172.299,38 eurokoa izan da guztira. Planean aurreikusitako kopurua erabili dugu sasoikako lanarekin zerikusia duten gaietan.

(2) Europako Gizarte Funtsak finantzatu du Jarduera horiek gauzatzeko laguntzaren %50.

ONDORIOAK

Sasoikako Lanaren Arretarako II. Plan Orokorraren baitan, Sasoikako Lanaren Erakunde arteko Mahaiak hainbat jarduera gauzatu ditu 2010ean. Jarduera horiek aurreko urteetakoekin alderatuz gero, honako ondorio hauek atera ditzakegu:

1.- Aurreko urteko joera izan du 2010ean ere, **jatorrian kontratatzekeo programak**. Oro har bere horretan mantendu bada ere, behera egin dute, arinki, urteko lanaldien eta programan parte hartu duten ustiategiaren kopuruek; aitzitik, kontratatutako sasoikako langileen kopuruak gora egin du (680 langile kontratatu ziren 2009an; 2010ean, aldiz, 739).

UAGaren programaren bidez egin diren kontratazioek, ordea, aurreko urteetako mailari eutsi diote. Hala ere, mahastizaintzaren, ardogintzaren eta patataren sektoreen etorkizunari begirata, oso zaila izango da egungo baldintza ekonomikoei eustea. Baldintzei eutsiz gero, bi gauza gerta daitezke: garesti izanagatik, baliteke nekazariak programan parte-hartzeari uztea edo, bestela ere, sasoikako langileei orain baino gutxiago ordaintzea.

Bultzadaren beharra du UAGaren programak. Joera aldatzerik ez badugu, ezin izango dugu proiektuarekin jarraitu.

Sasoikako lanaren kudeaketan, bestetik, lehen baino larriagoak dira zenbait kontu. Lan-baldintzak gero eta eskasagoak dira. Are gehiago, jakin badakigu laneko arauak betetzen ez dituztela eta diru-baldintza duinetan egin ez direla hainbat kontratu.

2.- Arazoak ditugu, oraindik ere, langileen eskubideak urratzen dituzten bitartekariekin. Azken horiek gero eta profesionalagoak dira eta, ondorioz, zaila da frogatzen haien esku-hartzea. Garrantzi handiko egitekoa du Lan Ikuskatzailtzak, eskura ditugun baliabide guztiak erabili behar baikenituzke Arabako Errioxan egiten diren **azpikontratazioei** aurre egiteko; arazo larria baita.

3.- Gizarte-eragile arduradunek beharrezkotzat jotzen badute ere, oraindik ez da **nekazaritzako hitzarmenik** sinatu. Langileen sindikatuen ustez, kontratatutako langileei bizitoki bat derrigor eskaini behar diete nekazariak. Oso zaila da, alabaina, baldintza hori betetzea bizitokiaren bizigarritasun-baldintzei buruzko egungo arautegia aplikatzearen bidez. Horregatik, indarreko Dekretua aldatzeari ekin zaio.

4.- Oso gutxi eskatzen dute **bizitokiak sortzeko edo daudenak hobetzeko** diru-laguntzarik (2 laguntza eskatu ziren 2009an; 2010ean beste 2; eta 2011n bat ere ez). Baliteke gizarteak eta sektoreak bizi duten egoera ekonomikoagatik eskatu izana hain diru-laguntza gutxi edo, aurreko paragrafoan azaldu dugun moduan, bizigarritasun-baldintza urri bete behar dituztelako bizitokiak. Arabako Errioxako hainbat udali galdetu behar genieke ea bizitoki komunitarioren bat eraiki nahi duten.

5.- Eltziegoko informazio-bulegoko **lan-poltsan** 158 lagunek eman zuten izena 2010ean (2009an, ordea, 213k). Antza denez, bulego horren bidez lanik aurkituko ez dutela uste dute sasoikako langileek. Aguraingo lan-poltsan, aldiz, 40 lagunek eman zuten izena 2010ean (2009an, ordea, 22k). Edonola ere, lan-poltsetan izena eman duten langileetatik batek ere ez du lanik izan, nekazariak ez baitira etorri langile-eske.

6.- Aurreko urteetan baino pertsona gutxiago etorri dira **Eltziego eta Aguraingo informazio-bulegoetara**. Eltziegoko bulegoan, esaterako, 244 pertsona agertu ziren informazio-eske 2009an; 2010ean, berriz, 244. Doako telefono-zenbakian ere 2009an baino dei gutxiago izan dira 2010ean (104 eta 91 dei, hurrenez hurren). Beraz, bulegoetara informazio-eske jende gutxi jotzen duenez, ontzat jo da Eltziegoko bulegora GSDOko funtzionariorik ez bidaltzeko erabakia. Arrazoi berberagatik, zerbitzuaren balioespen negatiboa egin zuen UAGAk.

7.- Mahats- eta patata-bilketaren aurretik, bestalde, hainbat **bilera** egiten dira nekazariekin. Bilera horien helburuak dira, batetik, kanpainaren berritasunak jakinaraztea nekazariari eta, bestetik, Planaren berri ematea bildutakoei. Nekazari gutxi agertzen direnez, bilera gutxi egiteari uzteko aukera aztertu beharko da.

8.- Gizartearen eta hezkuntzaren alorrean Arabako Foru Aldundiak urtero gauzatzen dituen programak aztertuta, ondoko hau ondorioztatu dugu:

Aurreko urtean baino sasoikako langile eta adingabeko askoz gutxiago etorri dira Aguraingo, Kanpezuko eta Arabako Mendialdea koadrilatara. Horregatik, 2010eko kanpainan lantalde bakarra aritu da Arabako Errioxan.

55 familia eta langileen 54 talde etorri ziren **Arabako Errioxara** 2010ean. **1.100** lagun izan ziren guztira: **160 adingabe** eta 940 heldu (2009an, berriz, 1.656 heldu eta 201 adingabe etorri ziren). Portugesak dira Arabako Errioxara etorritako pertsona horien %38,09 (hots, 419 lagun).

Erroldan sartutako 160 haur horietatik 61 eskolatu dira Arabako Errioxako bost ikastetxetan. Eskolara derrigor joan behar zuten 44 haurrek. Ikasleekin egindako lanarekin eta bizitako esperientziarekin pozik dira hezkuntzako proiektuan parte hartu duten irakasleak.

Guztira 98 bizileku lokalizatu dira (2009an, berriz, 111 izan ziren). Argindarrik, urik eta komunik gabeko bizilekuak aurkitu ditugu 7 udalerritan. Horiek guztiak hobetu beharko lirateke, ez baitute nahikoa bizigarritasun-baldintzarik betetzen.

2011ko maiatza